

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2023KO
ABENDUAREN 1A
[BIDASOA.HITZA.EUS](https://www.bidasoa.hitza.eus)
[OARSOALDEA.HITZA.EUS](https://www.oarsoaldea.hitza.eus)
890. ZENBAKIA

«Euskal doinuek sentimendu espezial bat dute»

ANTTON VALVERDE ABESLARIA Gaur jasoko du,
Oartzunen, Oarsoarrak Euskararen Saria.
Piano baten ondoan euskaraz kantatzen irudikatu
du bere bizitza, modu minorreko doinuekin // 4-7

Irati Lizeagak
euskarak enprestan
duen tokia
aztertu du // 12-15



Gazteak,
euskararen
lekukoaren
jabe // 30-45



Mila esker HITZAkide,

Zuri esker, zailtasun guztiei aurre eginez, zure eta gure proiektua aurrera doa. Bidasoan eta Oarsoaldean euskarazko informazioaren giltza eta bihotza zuek zarete.

OARSO BIDASOKO HITZAkide izateagatik Judas Arrieta sortzaile hondarribiarrak diseinatutako “Euskal Herria harrera herria. Mugak hiltzaile” 2024ko pareta egutegia jasoko duzu opari.

Abenduko lehenengo astean zehar **zure postontzian*** izango duzu!

*hala ez balitz, eta jakinarazpenik utzi ez badizute, galdetu Correoseko bulego hurbilenean.

egin

HITZA
kide

HITZAkide izateak abantailak baititu

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA • 2023ko abenduaren 1a

Oiertzualdeko Hedabideak S.L. ko kideak:


Oiertzun Irratia
 Orratz! Kultur Elkartea
 Antxeta Irratia
 Bertako Hedabideak
 Pausu media
 Lau Haizetara

eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.
 Udalak: Errenteria, Lezo, Oiertzun, Pasaia.



Oarsoaldeko
 Hedabideak
 EM

**Argitaratzailea:**

Oiertzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.**Telefonoa:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:

bidasoa.hitza.eus
 oarsoaldea.hitza.eus
 oarsobidasoa.hitza.eus

Publizitatea:**Telefonoa:**

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):

943 30 30 35**harpidetza@hitza.eus**

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

IRUDIA Hondarribia

Sua

Hondarribiko Herri Olinpiaden beste ekitaldi bat hasi zuten joan den larunbatean. Sua jarri zioten gazteek, eta ez hain gazteek, Hondarribiko udazkenari. Lehen eguna izan zen, maskotak eta taldeak aurkeztekoa. Hurrengo saioa hilaren 16an egingo dute. Hondarribiarren suak iraun dezala, eta euskaraz. Gazteak horretan eredu izaten ari dira, Herri Olinpiadetan bai behintzat. HITZA





“Nire bizitzaren doinua modu minorrean emango nuke”

ANTTON VALVERDE ABESLARIA

Gaur jasoko du Oarsorak Euskararen Saria, Oiartzungo Landetxen, 19:00etan. Ez du hizketaldirik prestatu. Haren adierazteko era pianoaren ondoan kantatzea baita, euskaraz.

EIHARTZE ARAMENDIA IPARRAGIRRE OIARTZUN

Musikagintza eta laguntasuna. Elkarri eskua emanda joan dira Antton Valverde (Donostia, 1943) musikagilearen kasuan. Eta euskara beti izan du bidelagun: «Euskaraz abesteak betetzen nau, beste hizkuntzetan kantatzea arrotza da niretzat. Ez da sentimendu bera, desberdina da». Orain dela hiru urte atera zuen *Gaua. Ausentziaren itzala* bere azken proiektua eta horren ondotik «antzututa eta hustuta» gelditu zela aitortu du. Dena den, bere egunerokoan musikak leku nabarmena du, ez dio inoiz pianoa jotzeari utzi. Oarsoarrak Euskararen Saria jaso izana ere halaxe eskertuko du, pianoaren doinuekin.

Nola hartu duzu Oarsorak Euskararen Saria jasotzearen berria?

Ongi hartu nuen deitu zidatenean, ez nuen inongo dudarik izan onartzeko, inolako disimulorik gabe diot [barreak]. Kontent nago, gainera nik Oiartzunekin lotura izugarria dut. Gurasoak errente-

riarrak izan arren, Oiartzunen etxe bat zuten eta nik udara guztiak Oiartzunen pasatzen nituen. Kantatzeko ere askotan deitu izan didate eta abeslarien artean nire lagunik onena ere oiartzuarra zen [Xabier Lete]. Bai, oso kontent egia esan.

Sekula ez didate saririk eman, hau berria da niretzat. Momentu honetan ez dakit zer egingo dudan oholatza gainera... Diskurtsorik ez dut prestatu gainera, ez dut askorik hitz egingo. Nire gauza kantatzea da eta hori egingo dut. Oraindik ez dut pentsatua zer kantatuko dudan, baina seguru aski Xabier Letek egindako letraren batekin nik musikatu-tako zerbait izango dela. Hori iruditzen zait egokiena.

Udarak Oiartzunen pasatzen zenituela esan duzu. Zein oroitzapen dituzu?

Ekainetik urrira bitarte urtero-urtero joaten ginen denok huts egin gabe. Nire gurasoak, aldiz, Donostian bizi arren, egunero Oiartzunera joaten ziren autoa hartuta. Nire aita zenak Oiartzungo etxean pasatzen zituen orduak pintatzen, idazten... eta nire ama etxea gobernatzen. Nire aitak han zuen bere estudioa eta hantxe galtzen zen. Lagunak ere hara eramaten zituen.

Gustura ibiltzen nintzen. Goizean goiz bizikleta hartu eta gaua iritsi arte ibiltzen nintzen. Herritik Gurutzera, Gurutzetik Iturriotzera... Kilometroak eta kilometroak egiten genituen eta gero ilunabarrean plazara joaten nintzen. Nire adineko neska-mutikoak elkartzen ginen eta jolasten ibiltzen ginen. Oroitzapen politak ditut. Xabier [Lete] Oiartzuni esker ezagutu nuen.

Saria Oiartzunen jasotzeak nolabaiteko esanahi edo zirrararik sortzen dizu?

Bai, estimatua sentitzen naiz. Landetxe ezagutzeko aukera izango dut gainera.

Epaimahaiak euskal kulturari egin diozun ekarpen «itzela» nabarmendu eta goraiatu du.

Eskertzen diot epaimahaiari. Baina nire ekarpena zer izan da, bada? Kanta zaharrak hartu, gaurkotu eta kantatu. Gauza handirik ez. Kantu zahar horiek ezagutarazi ditut, egia da, baina ez dakit horrenbesteko den. Garai batean kanta zaharrak bakarrik jotzen nituen, baina

Euskal kulturari egindako ekarpen «itzela» aitortzeko emango diote gaur Oarsoarrak Euskararen Saria Valverderi. Idoia Zabaleta_FOKU

gero berriekin hasi nintzen; alegia, nire musika egiten hasi nintzen. Letrei dago-kienez, behin bakarrik egin dut nirea...

Behin bakarrik? Zergatik?

Oso letra txarra da [barreak]. Xabierrek [Lete] komentario bat ere egin zidan. Ez dut gogoratzen zehazki nola esan zidan, baina esan zuenagatik nik uste berari ere ez zitzaiola askorik gustatu. Ile apainde-gira ilera moztera noala kontatzen dut; ispiluan nire burua ikusten dut eta han ikusten dudana ez zait gustatzen. Horri buruzkoa da idatzia, lau edo bost ber-tsoz osatua. Kanta hori Gregorio ile apaindegiko jabeari eskaini nion. Gaiak grazia pixka bat badu, baina ez dago oso ondo egina [barreak]. Hori da kontua!

Zer izan da zuretzat euskaraz kanta-tzea?

Behin aita zenarekin Berara (Nafarroa) joan nintzen jaialdi batera. Han Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo eta beste hainbat zeuden. 1968. edo 1969. urtea zen. Nik ere euskararen alde zerbait egin nahi nuela pentsatu nuen, besterik gabe. Gitarra ere jotzen nuen, eta disko bat grabatu nuen Iñaki Beobi-dek emandako aukerari esker. Ordutik aurrera jendea deika hasi zen, abiadura hartu nuen, eta gaur arte. Nire motiba-zioa euskara eta kultura ziren.

Garai hartan edo orain euskaraz abes-tea, alde pixka bat egongo da.

Bai, bai badago. Ez du zerikusirik, lehen euskaraz kantatzen ibiltzea konplikatua samarra zen alde askotatik. Alde bate-tik, baldintza teknikoak penagarriak izaten ziren, eta bestetik, zentsurarekin beti problemak zeuden. Bakoitzak onar-tutako errepertorio bat eduki behar genuen, Informazio eta Turismo Sailak onartua. Toledotik-edo etorritako ordezkari bat zegoen eta hark baimena ematen zuen edo ez. Edozein astakeri, edozein tontakeri debekatzen zuen, ulergaitza zen. Baina horrela zen eta hortik pasatu behar genuen. Jaialdi bakoitzeko zer kantatu behar genuen bidali behar genuen, baina gero kantal-dietan potroetan jartzen zitzaiguna egi-ten genuen. Beti norbait bidaltzen zuten kontrolatzera, baina normalean ez zen ezer pasatzen. Hala ere, beti kontrola-tuak sentitzen ginen, beti.

Zentsurarekin Xabierrek [Lete] ba-zuen proposamen bat. Egun batean zer-bait debekatu zioten eta asko haserretu zen. «Honi zigorra ezarriko nioke, soto batean sartuko nuke disko-jogailu bate-kin eta gure kanta entzunaraziko niz-kioke behin eta berriz!», esaten zuen.

Euskal Kantagintza Berriaren garai ho-riek nola bizitu zenituen?

Niretzako mundu desberdin batera sar-tzea bezala izan zen. Ordura arte enpre-san nenbilen lanean —gero ere—, eta mundu hori ez nuen ezagutzen. Egia esan behar badut hor nire lagunik one-nak aurkitu nituen. Xabierrekin zer esa-nik ez, baita besteekin ere: Mikel [La-boa]... Oso gustura sentitu izan naiz eta nire burua nolabait justifikatua ikusi dut horretan aritzeagatik.

Horrez gain, Euskal Herria ezagutzeko aukera ezin hobea eman dit, leku asko eta askotan ibili bainaiz. Baita Euskal Herri-kanpo ere: Salamancan, Valladoliden, Zaragozan, Madrilan... eta Txipren.

Nolatan Txipren?

Iñaki Beobideren bitartez gonbidapena ailegatu zitzaigun. Oso kurio-oso-a zen: Mediterraneo-ko estaturik gabeko nazio-en jaialdia zen. Mediterraneo-tik guk ez dugu ezer, baina beno... Uste dut katalu-niar batzuk ezin zutela joan esan zutela, eta orduan gu izan ginen orde-zkoak. Xabier eta ni kontent arraio joan ginen, dena pagatuta eta astebete edo hamar egun izan ginen han, oso-oso ondo. Jaialdia Eurovisionen bertsio zakar bat izan zen, estaturik gabeko nazio-en kon-tu horrekin ez zuen inongo zerikusirik azkenean. Seguru aski kataluniarrak hor-retaz ohartu eta horregatik bota zirela atzera!

Kontzertuz kontzertu ibiltzen zineten Lete eta zu, baina momentu batean gel-ditza erabaki zenuten.

Bai, ezinezkoa zen, ezin zen normal kan-tatu. ETako batek guardia zibil bat hilt-zen zuen eta hurrengoan Guardia Zibi-lak ETako norbait, edo grebak ziren... beti bazen zerbait eta kontzertuetan jendea joka-eta ibiltzen zen. Gelditza erabaki genuen. Urte dezente egon gi-nen jo gabe. Kontzertuak leku desberdi-netan ematen genituen, aretoetan, fron-

«Nik ere euskararen alde zerbait egin behar nuela pentsatu nuen»

«[Euskal Kantagintza Berriaz] Mundu desberdin batera sartzea bezala izan zen»

«Lauaxeta oso barneratua daukat»



Idoia Zabaleta_FOKU

toietan... Frontoietakoak izaten ziren nolabait zaratatsuenak. Teorian jendeak giro horretan kontzertuak behar zituen, baina azkenean aitzakia ziren beste era bateko bilerak egiteko eta guk ez genuen hori nahi.

Familiako enpresan lan egiten zenuela aipatu duzu. Nola uztartzen zenuen musikagintzarekin?

Nahiko ondo moldatzen nintzen. Kontua da entsegu asko ez genituela egiten, erraztasuna nuen musika egiteko eta interpretatzeko orduan ez nuen entsegu askoren beharrik. Horrek enpresan behar bezala lan egitea baimentzen zidan.

Familiako enpresari esker, inprentari esker, artista asko ezagutzeko aukera ere izan zenuen.

Bai, hori nire aitari zor diot. Bera multidiziplinatua zen: pintore, idazle... eta lagunak zirkulu horretakoak zituen. Gure etxera jende asko etortzen zen estropadak ikustera, Guridi, Nemencio Etxaniz, Chillida, Oteiza, Aita Donostia... Artista plastiko batzuekin hartu-eman sortzen zen inprentan kartelak egiteko, liburuak egiteko... Noizbait ikusia dut

Nestor Basterretxea fabrikan zuzenean margotzen arkatx litografikoarekin inprimatzeko plantxa bat.

Musikan aritzeko grina familatik dator-kizu.

Nire aitaren bi arreba musikariak ziren eta horietako batek [Jesus] Guridiren katedra hartu zuen hura hil zenean. Sei urte nituela piano baten aurrean jarri ninduten eta ordutik beti jo izan dut. Musika ikasketak egin nituen bururaino.

Lauaxetaren olerkiak musikatu dituzu batik bat. Zergatik bera?

Joxeanton Artzek liburu bat atera zuen, *Isturitzetik Tolosan barru*, eta liburu horren portada egiteko gure inprentara etorri zen. Portada horretan hainbat argazki sartu nahi zituen, tartean Lauaxetarena. Ordura arte nik ez nuen entzuna ere bere izena, baina halako zerbait egin zidan barruan. Handik urte batzuetara liburuxka bat atera zen Lauaxetaren poesia gehienekin, eta liburu horri hamaita buelta eman dizkiot eta hortik disko bat atera nuen. Ordutik Lauaxeta oso barneratua daukat. Alde batetik, bere

poesia asko gustatzen zait noski, eta bestetik, pertsona. Nola daiteke horrelako pertsona bat fusilatzea?

Poesia irakurtzean beti omen duzu edo beti omen datorkizu musika burura. Poesia guztiarekin gertatzen al zaizu hori?

Batez ere metrika aldetik karratuak direnekin, besteekin ez. Besteekin indar gehiago egin behar dut musikari forma emateko.

Orain baduzu zerbait esku artean?

Zerbait bai. Karlos Linazasororen, Mirren Agur Meaberen eta beste hainbaten olerkiak ditut esku artean.

Zure bizitza osotasunean hartuta, zure bizitza poesia batean irakurriko bazenu, zein musika ezarriko zenioke?

Tristea ez behintzat, alaia izango litzateke. Egokitu zaidan bizitzarekin konforme nago. Tristura ez, baina euskal doinuek askotan dute halako sentimendu espezial bat, gehienak modu minorrean dira eta nire bizitzaren doinua ere modu minorrean emango nuke, maiorrak baino askoz gehiago hunkitzen nau. Modu minorrean eta erritmo lasaian. ✕

GUTUNAK

Renfe: Donostiako aldirikoekin arazoak

Donostiako aldiriko trenen Renferen zerbitzuekin urte luzetako amesgaiztoa jasaten ari gara, eta berdin jarraitzen dugu gaur egun, era askotako arazoekin: trenen atzerapenak, iristen ez diren trenak, datorren trena zurea ote den jakiteko arazoak izaten dira, edo aurretik etorri den tren hori (berandu etorri dena) ote den zurea... Obrak, trenbide aldaketak, azpiegiturarekin eta seinalizazioarekin arazoak, abisua eman gabe kontrako trenbidetik datozen trenak, pantailetatik eta megafoniatik ematen den informazioa okerra da, zaharkitu diren eta inork konpontzen ez dituen instalazioak daude, mantenu falta oso nabarmena da, garbiketarik ez... Guztiz informatizatuta

dagoen zerbitzu horrek, duela 40 urte baino funtzionamendu eskasagoa du. Hori ez da nire ustea soilik. Erabiltzaile askok jasaten ditugu horrelakoak egunero-egunero. Gogaigarria da egoera.

Batzuetan, barregura sortzeko moduko egoerak suertatzen ari dira. Egunen batean trenak elkarren kontra talka egiteko arriskua izango dute.

Espainiako Gobernuak Garraio ministro berriari: jarri ordena eta fundamentua zure ministerioan, baita aldirikoen zerbitzuan ere, eta hasi kargugabetzeak gauzatzen gauzak bere onera itzultzen ari ez badira. Zerbitzu hau zirku batean bilakatzen ari da. Eta hori ez baduzu egiten, dimisioa eman beharko duzu.

Eduardo Perez Cortes.

[Pasai Antxo](mailto:PasaiAntxo)



A30eko greba feminista orokorra

HITZA-ko lankideek, asanblean, atzoko Greba Feminista Orokorrekin bat egitea erabaki zuten. Lantaldea murrizta delako gutxieneko zerbitzuak ezin bete, eta erabateko greba egin zuten atzokoan. Astekari hau asteazkenean bidali zen inprentara.

Gaur, HITZA-ren bi webgune nagusietan (bidasoa.hitza.eus eta oarsoaldea.hitza.eus) atzoko egunak emandakoaren gaineko informazioa zabalduko du he-dabide honek.

HITZAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar. Gutunak honako helbide elektronikora bidali behar dira, izen-abizenak jarrita: oarsobidasoa@hitza.eus

Tknika

Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuako Zentroa
 Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
 Basque VET Applied Research Centre


Tknikan eta Lanbide Heziketan euskaraz

Zamalbide auzoa • 943 08 29 00 • Errenterla
www.tknika.eus

ELKARREKIBETZA

GOBIERNO VASCO

FP



BARRURANTZ

Txoriak ere isiltzen dira
neguan...

MENDI URRUZUNO

Errenteria-Orereta





“Laneko zorua zein den jakiteko inbertsioak egin beharko lirateke”

IRATE LIZEAGA ELIZALDE ELHUYARREKO KIDEA

Irati Lizeaga (Pasai Antxo, 1994) zientzia eta euskara uztartzen dituen Elhuyar fundazioko kide da. ‘Euskararen egoera Oarsoaldeko lan-munduan’ azterlana argitaratu du aurten.

BEÑAT AGIRRESAROBEN BARANDIARAN LEZO

Zein kezka eraman zintuen ikerketa egitera? Aurrez, nolako iruditzen ziztaizun egoera?

Master bukaerako lan bat izan da, eta Soziolinguistika Klusterraren Hausnartu sari banaketara aurkeztu nuen. Aurretik Oiartzungo plataforma sozioekonomiko handiek (Mercadona, Leroy Merlin, eta abar) herriko joan-etorrietan zein inpaktu zuten aztertu nuen, eta hortaz, hizkuntzan duten eragina ere. Orduan, nahiko murgilduta nengoen mundu honetan.

Behin eta berriro entzuten den gauza bat denez ez dugula lan munduan euskarak bizi duen egoera ezagutzen, masterrarako aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen.

Euskara osasuntsu al dago Oarsoaldeko lantoki eta enpresetan?

Hiru gauza esan behar ditut. Batetik, kontent nago 700 erantzun jaso nituelako

ko galdetegia egin ondoren; baina, noski, lagin hori ez da eskualde osoko euskararen egoera egun nolako den esateko. Hortaz gain, datu aitortuak dira. Esan nahi dut: norberaren pertzepzioaren arabera erantzunak jaso ditut, eta baliteke erantzunek errealitatearekin bat egiten ez dutela iruditzea, edo alderantziz. Gainera, batez ere emakumeen ikuspegia jaso dut, 500 erantzun baino gehiago emakumezkoenak baitziren.

Hiru alderdiak kontuan hartuta, titularrak ateratzea zaila da. Dena den, adibidez, langileen gaitasunari dagokionean langile euskaldunen presentzia nabaria da sektore guztietan, baina indartsuena administrazio publiko eta zerbitzuen sektoreetan dago. Bestela, sortzen den kartelerian, errotulazioan, badago batez ere elebitan jartzeko txipa, eta batzuek euskara hutsean jartzen dute ere.

Erakunde pribatuetan, erronka nagus-

Oarsoaldeko enpresen gaineko ikerketa lana egiteko, besteak beste, 700 langileren erantzunak jaso ditu Lizeagak. Beñat Agirresarobe

sia barne komunikazioa da oro har. Horietan gaztelaniazko adierazpenak gehiago dira. Barne bileretan gaztelania gailentzen da ere bai. Hau da, laneko hizkuntza, nagusiki, gaztelania da. Dena den, bi hizkuntzak bizirik daude gaur egun sektore guztietan, eta enpresek langile euskaldunen presentzia baliatu beharko lukete haien estrategietarako.

Ondorio horretara iristeko, zein metodologia erabili dituzu?

Masterrari begira, bi alderditan banatu nuen lana: alde teorikoa eta praktikoa. Teorikoa elkarrizketetan oinarritu nuen. Harremanetan jarri nintzen Oarsoalde Garapen Agentziako Euskara arduradunarekin, batez ere orain artean ikertutakoaren gaineko ikuspegia jasotzeko, administrazioaren aldetik batik bat. Oiartzungo Euskara teknikariarekin ere bildu nintzen. Gero, Elhuyarren duela 20 urteko Ola Plana baliatu nuen. Praktikoan, herritarrei begira, galdetegi bat zabaldu nuen Internet bidez. Sare sozialak baliatu nituen zabalpenerako, eta nagusiki herritarrek zabaldu zuten; ELA eta LAB sindikatuekin ere jarri nintzen harremanetan.

Zein aldagai aztertu dituzu?

Galdetegian hainbat galdera egin nituen: datu orokorrak (sexu generoa, adin tartea, enpresako langile kopurua), euskararen egoera (presentzia errotuluetan, kanpo harreman edo bileretan) eta hizkuntza jarrerak (hobetzeko estrategiak) jasotzera bideratutakoak. Azken horietan eskaini nituen aukeretako batzuk laneko bilerak euskaraz egitea, lankideekin euskaraz egitea, edo bezeroari lehen hitza euskaraz egitea izan ziren.

Elhuyarren 2003-2004 arteko Ola Plana abiapuntu, Oarsoaldeko lan-munduan azken 20 urtean euskararen egoera nola aldatu den aztertzeko aukera izan duzu. Ze ondorio ateratu duzu bertatik?

Duela 20 urte ez ziren estuki galdera berberak egin, baina orain galdetu ditudan gauza batzuk ageri dira. Errotulazioa nola egiten zen enpresetan, edo ahozko barne erabilera zein zen, adibidez. Ola Planean telefonozko ahozko harreraren inguruan galdetu zen, eta nik bezeroarekiko egungo harremanarekin parekatu dut aldagai hori.

Errotulazioaren kasuan, duela 20 urte %28koa zen euskarazkoa, eta orain %77koa da. Izugarri hazi da euskararen presentzia. Ahozko erabilera ere, hogeit puntuan hazi da lantokietan euskararen presentzia. Badirudi barne harremanetan ere pixkana hobetzen ari dela. Logika dauka, gazteak euskaldunak direlako. Kanpora begira ere, bezeroarekiko harremanetan, euskararen erabilera gora egin du. Alderaketa honek 20 urteko bilakaera ezagutzeko aukera eman dit, eta hobekuntza nabarmena dela esango nuke.

Lantokietako errotulazioa itzultzeko udalek egin duten ahaleginaz aritu zara. Nola eragin du ahalegin horrek?

Egia da errazena dela. Esan nahi dut, kartela behin aldatzea besterik ez da [barrez]. Gainera, enpresek laguntzak jasotzen dituzte horrelakoak egiteko, eta lehen pauso bezala oso ongi dago. Neurriak langileek egunero euskaraz idatzitako kartelak irakurtzea suposatzen du, eta euskara, modu batean edo bestean, eguneroko bizitzan sartu egiten da horrela. Nabarmendu nahi dut, COVID-19aren aurretik behintzat, Praktikak Euskaraz inizatibak egin zuen lanketa. Horrek baldintza batzuk jarri zizkien gazteak jasoko zituzten enpresei, eta errotulazioa euskaraz egon behar zela baldintza horietako bat zen. Ikaslearen tutoreak euskalduna behar zuen ere bai.

Eskualdeko erakunde publiko eta pribatuak lan egoera aztertzen ibili zara. Nola uztartu daitezke ondorioak kaleko eta etxe barruko egoerarekin?

Konparaketa hori egiteko bailarako udalerrietako kale erabilera datuak kontsultatu ditut. Batez beste, Oarsoaldean, euskararen kaleko erabilera %31koa da, eta lantokietako erabilera, jaso nituen datuen arabera, %39koa da. Orduan, kalekoarekin bat datorrela esan genezake. Kanean euskaraz egiten duenak, seguru aski lanean ere erabiliko duela. Batzuek agian ez, lan mundua erdalduntzailea delako, eta sistema erdaldun batean sartuz gero horrela integratuko zarelako agian. Baina datu horrek antzekotasunak ditu, beti ere kontuan hartuta nik ateratako emaitza eskualdeko egoeraren lagin mikro batetik lortutakoa dela.

«Langile euskaldunen presentzia nabaria da sektore guztietan»

«Errotulazioen kasuan, duela 20 urte %28 zen euskarazkoa; orain %77 da»

«Horrelako ikerketak sustatu beharko lirateke»



Beñat Agirresarobe

Pertsona euskaldun batentzat lantokia, azken batean, euskaraz egiten jarraitzeko eremu bat izan daiteke, edo erdal-duntzailea; eta, aldiz, kanpoan euskara erabiltzen ez duen pertsona batentzat, lantokia euskara erabiltzeko toki bakarra izan daiteke. Lagunartean eta familia ez badituzu euskaldunak, baina lanean giro euskaldunean murgiltzeko aukera izaten bada, egunero euskaraz hitz egiteko aukera zabaltzen da.

Ikerketa egin bitartean, zein zailtasun nabaritu duzu gehien?

Zailtasun handiena ondorio nagusiak ateratzeko lagin txikiegia erabili dudala izan da. 700 erantzunek datu ikaragarri pila eskaini zizkidaten, galdetegia erantzun zuen pertsona bakoitzak galdera asko erantzun zituen, baina horrek ez du kentzen lagin txikiarekin lan egin dadunik. Nire ustez, gainera, zabalpena herritarrek egin dute batez ere. Seguru aski publiko euskaldun batera iristeko ahalmena izan dut bakarrik, nire publikoa delako. Gainera, erantzuterako ga-

raian emakumeen inplikazioa nabaritu dut gehienbat. Egia da, batik bat, ikerketak jende euskaltzalearen erantzunak jaso dituela. Kontrako jarrerak falta dira ziur aski.

Bestela, ikerketa nire aisia denboran zehar egin behar izan dut. Masterra egin behar nuenez, ondo etorri zait aitzakia bezala, baina denbora librean egin izanak esan nahi du ez dagoela, une honetan behintzat, horrelako azterketak egiten ari denik, nik dakidala behintzat. Lanarekin uztartzeko zailtasunak izan ditut ere.

Anonimotasunaren alde egin dut. Jendeak zein enpresatan lan egiten zuen interesgarria iruditzen bazitzaidan ere, banekien anonimotasuna gorde ezean ez nituela hainbeste erantzun jasoko.

Etorkizuneko erronkei buruz, zer esango zenuke?

Udalek, baina baita enpresek ere, merkaturua ezagutu behar dute. Lan mundua oso ezezaguna da. Lehen saio teorikoe-tan, elkarrizketetan, eskualdeko herrie-

tako enpresa kopurua zenbaterainokoa zen jakitea oso zaila jaso nuen, eta hortik aurrera enpresetan sartzea ere ez zen erraza izan.

Anonimotasunarekin lotuta, erronka bat izan daiteke jaso ditudan datuak katztea. Oarsoaldeko irudi orokor bat jaso dut, baina ez dakit zein den industria enpresa edo tamainaren araberako egoera.

Ahal dela, horrelako ikerketak sustatu beharko liriateke, eta pertsona baten lana bihurtu. Norberak inguruan duen laneko zorua zein den jakiteko inbertsioak egin beharko liriateke, eta horrela benetakako egoera zein den jaso, politikak eraginkorragoak garatzeko. Tamalez, orain-txe bertan ez dago horretarako baliabiderik.

Bestela, diskurtso aldaketa bat proposa daiteke. Oso ondo dago bezeroari begirako elementuetan euskara kontuan hartzea, baina diskurtsoa langile euskaldunei begira ere landu behar da, sektore guztietan. ✕



Arrantzale auzoa eta ingurua festaren epizentro izango da bihar. HITZA

Elkar besarkatuko dira bihar euskara eta hondarribiarrak

Euskararen Eguna ospatzeko egitarau oparoa ondu du biharko Blagan elkarteak, egun osokoa. Jolasak, bertsoak, bazkaria, kontzertuak... «Herriari eta euskarari bizia» emango diote bihar hondarribiarrek.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Aurten ere behar bezala ospatuko dute Euskararen Eguna hondarribiarrek, egun osoko egitarau oparoa prestatu baitute biharko. Orain arte ezaguna izan den Blagan Eguna ordezkatzeko du biharkoak, aurtengo «festa potoltzeko» erabakia

BIHARKO EGITARAUA

- 11:00.** Haurrentzako eskulanak izango dira Arrantzale auzoan.
- 12:00.** Bertso poteoa egingo dute, Beñat Gaztelumendi eta Maialen Akizu bertsolariekin, Arrantzale auzotik abiatuta.
- 14:00.** Bazkaria izango da Kasino Zaharrean. Txartelak Itxola eta Ttoparan eskura daitezke, 10 euroan,.
- 17:00.** Txikiren umorezko bakarrizketa. Euskaldunon jatorriaz, historiaren eta irriaz ariko da.
- 19:00.** Jawata anti-DJaren emanaldia, Alde Zaharreko karpan.
- 21:00.** Herriko taldeen kontzertuak: Hok ttuk Hamalau, The liingles eta Skubi.

hartu baitute elkartekoek. «Herriari eta euskarari bizia emango diogu bihar. Hondarribiarrek ikus dezatela euskarak indarra duela herrian, hor gaudela. Euskararen festa handia izango da», azaldu du Blaganeko kide Roxa Arozenak.

Haur, gazte eta heldu. Denek zerekin gozatu izango dute bihar. «Goizetik hasi eta gaueko ordu txikiak arte luzatuko dugu festa. Jolasteko, jateko eta dantzatzeko aukera izango da. Zer gehiago behar dugu? Egun biribila izango da!», erantsi du. Bide batez, oraindik bazkari-ko txartelak eskuratu ez dituztenak horiek hartzera deitu ditu herritarrek, oso gutxi geratzen direla jakinarazi baitu.

Aldarrikapen kutsua ere izango du biharkoak, Arozenaren arabera, «asko baitago egiteke hemen ere». 2021eko kale neurketara jo du hondarribiarrak, eta horren arabera, herritarren %16,3k hitz egiten dute euskaraz kalean. Aurreko ikerketarekin alderatuta (2016an egin zuten), 8,3 puntu behera egin du erabilerak. «Datu kezagarriak dira. Hondarribian euskaraz aritzeko gogo handia dago, baina gero errealitatea nahiko tristea da», erantsi du, kezkatuta. Biharko festa, askorentzat, bide horretan lehen pauso bat izan daitekeela dio: «Urtero lagun batzuk *engantxatzen* ditugu egun honetan, aurten ere ziur hala izango dela. Gure esku baitago euskara mantentzea, baina baita galtzea ere. Bihartik hasita, urte osoko borroka egin behar dugu». ✕



Bi ekintza matxista salatu ditu Emekik

Joan den larunbateko goizaldean «bi ekintza matxista» izan zirela salatu du aste honetan Emeki Emakume Elkarteak. Talaia, Ama Guadalupekoa eta Egiluze ikastetxeekin batera ekintza horiek gaitzesteko oharra kaleratu dute.

Ekintza matxista horiek Martxoak 8 plazan egin zituztela azaldu dute. Bertan herriko emakumeek eta ikastetxeetako kideek sare moreak egin zituzten ostira-lean: «Bi pankarta erre zituzten eta Egiluze ikastetxeko lehen hezkuntzako ikasleek egindako lanak apurtu zituzten», diote, amorruz.

Udalak ikerketa bat zabaldu du gertatutakoa argitzeko eta inplikaturakoa identifikatzeko. «Indarkeriazko ekintza hau dela eta, argi geratu da lanean jarraitzea ezinbestekoa dela emakume eta neska guztien eskubideak berma daitezzen», erantsi dute Emekik eta ikastetxeek.



Kirol kaia, herritarrei esker, garbiago

Itsas Zaintza Sareak deituta, hondakin bilketa handia egin zuten asteburuan Hondarribiko kirol kaian. Gipuzkoako beste bost herritan ere ekintza berbera egin zuten, eta guztira, 250 boluntario baino gehiagok egin zuten bat deialdiarekin. Gipuzkoa osoan 350 kilo hondakin jaso zituzten: 8.600 objektu guztira, horietatik %40,8 plastikozko pieza degradatu eta zatikatuak.

15.649 euro bildu ditu zortzigarren Beñat Elzok

Beñat Elzo mendi lasterketa arrakastatsuak diru kopuru handia bildu du beste urte batez. Aurtengoan 15.649,14 euro bildu dituzte antolatzaileek, aurki Angelman Sindromearen Elkarteak jasoko dituenak.

Urteroko argazkia atera dute antolakuntzako kideek Klink elkartearen aste honetan. Aurten ezin izan dute bazkari solidarioerik egin elkartearen, baina elkar-tekoek keinu bat egin diote kausari, eta bazkari eder batekin gozatu dute asteburu honetan joan den azaroaren 1ean egitasmoaren alde izerdia bota zuten boluntarioek.

«Antolakuntzatik eskerrak eman nahi dizkizuegu boluntario eta kolaboratzaile txiki eta ertain guztiei. Denon artean diru kopuru potolo hori lortu dugu, zuek gabe hau ez litzateke posible», adierazi du antolakuntza taldean dabilen Mikel Garciak.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
TREBETASUNA ETA PROFESIONALTASUNA

BASQUE LABEL HARATEGIAK
— %100 GURE —
BASERRITARREKIN

K EUSKO LANG. PRODUKTUEN ERREGULAZIO ERREGLAMENDUEN ESTABLEZIMENDU ESPEZIALIZATUAKI PARAPRODUKTUEN JOKAERAREN

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

HONDARRIBIA:
JUREAN HARATEGIA - Harresilanda, 7

IRUN:
MIKEL ZABAL HARATEGIA - San Pedro Kalea 2/g



Larraundi-Olaberriko auzo elkartean biltzen dira ikasleak. A. Aranburu

Euskara ikasteko aukera, Larraundiko auzo elkartean

Otsailean jarri zen martxan hastapeneko euskara taldea Larraundi-Olaberria auzo elkartean, AEKren laguntzaz. «Gerturatu» egin da euskara, eta auzoa euskalduntzeko oinarri berri bat ezarri dute.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Larraundi-Olaberriko auzo elkartea bizi-bizirik dago. Inoiz baino biziago. Horren erakusle azken bi urtean antolatu dituzten askotariko jarduera kulturak, haurrentzako liburu taldea, idatzita-

ko auzo plana edota auzoko jaien biziberritzea. Euskara da haien hizkuntza eta euskaraz ari dira auzoa egiten. Baina auzoa euskalduntzeko beharra ere identifikatu zuten, eta horretan urratsak egiten ari dira. «Arrazoi askorengatik gaur egun ez da auzo euskalduna. Horregatik, doako klaseak eskaini nahi genituen au-

zoan, euskara ikasteko aukera izan ez duten auzotarrei aukera eskaintzeko». Horretarako, Irungo AEKrekin jarri ziren harremanetan eta klaseak auzora gerturatzeko proposamen bat luzatu zieten.

Iazko ikasturte hasieran nahi zuten klaseekin hasi, baina gutxieneko ikasle kopurura ez ziren iritsi. Orduan, aurtengo otsailean berriro zabaldu zuten hastapen klasea osatzeko asmoa, eta, horretarako, bi kide-
ren faltan ziren. Iniziatiba aurrera ateratzeko Izaskun Sagarzazuk izena eman zuen: «Euskaldun zaharra naiz eta taldea osatzeko sartu nintzen

klase hauetan. Gustura nagoenez, bertan gelditu naiz».

HITZA ikasgelara sartu da, eta sei ikasleetatik bostekin izan da. Hala ere, bertan zeuden ikasleek haien izen guztiak «mesedez» aipatzea eskatu dute «denen artean ari garelako ikasten»: Junkal Alfonso, Karmele Aranda, Akissi Bado, Agustín Ogeta, Olga Reinoso eta Izaskun Sagarzazu.

Astean bi orduko bina saio egiten dituzte, astearte eta ostiral eguerditan. Arbelaren aurrean, eta ikasleak entzuten azalpenak ematen baino denbora gehiago pasatzen du Olatz Berasarte AEK-ko irakasleak. Ikasgela auzora gerturatzea bertako euskalduntze prozesuan «gakoa» izan dela uste du Berasartek, eta AEK pausoak ematen laguntzeko prest dagoela adierazi du. «Bidelagun izateko gerturatu egin gara, urrutirago heltzeko».

Euskara, «gertutasunetik»

Ikasleek ere bat egiten dute euskara klaseak gerturatzea euskara ikasteko bultzada izan dela. Ogeta ikaslea urte asko euskaltegietan pasatakoa da, eta orain, zailtasunak ditu hiriko euskaltegietara gerturatzeko «osasun arazotxoak» medio, «gerturatu direnetik, niretzat, hobeto». Arandarentzat ere haiengana gerturatzea «oso inportantea» izan da, eta sumatu du «asko askatu» dela euskaraz hitz egitean.

baikara

www.elatzetaikastetxea.net

Guztiona dena guztion artean eraikiz

elatzeta
IKASTETXEA

Araba kalea, 44-20305-Irun
012102aa@hizkuntza.net
Tel: 943 89 93 45

Bado ikaslea Santiago auzokoa da, baina gertu sentitu du ikasgela: «Uste dut klaseak gerturatzea ideia ona dela, eta formatu lasai hau lagungarria dela». Duela urtebete iritsi zen Irunera Madrildik, eta urtebetean «gehiago euskaldundu» dela nabaritu du, batez ere, lanean: «Lanean, hasieran, ez nekien zer esan nahi zuten hitzek eta klaseetara etortzeagatik badakit esaten *egun on* edo *arratsalde on*. Hitz horiek esaten jakiteak hemengo sentiarazten nau».

Euskara haiengana gerturatzea «gako» izan da ikasleentzat

Reinosa eta Ogeta senar-emazteak dira. Haien seme-alaba euskaldunen babesa dute prozesu honetan. Izan ere, etxean «pixka bat» elkar hitz egiten dute, «alaba oso harro dago nitaz», azaldu du Reinosak. Babesa eta akonpainamendua «oso garrantzitsuak» direla azaldu du, eta hunkituta euskararekiko maitasuna ere agerian utzi du Reinosak: «Ez nuen euskara ikasteko aukerarik izan, eta, oraindik, ez naiz askatu hitz egiterakoan. Oso garrantzitsua iruditzen zait euskara mantentzea»; «eta hitz egitea!», gaineratu du Ogetak.

Ikasle bakoitza mundu bat da, eta euskara maila ezberdinak dituzte. «Auzotarrak harremanak estutu» dituztela dio Berasartek, eta «oso giro» ona lortu dutela gaineratu dute aho batez ikasleek. «Primeran» moldatzen direnez, hurrengo ikasturtean segituko dute. ✕



A. Aranburu

«IRUN BIHOTZEAN», SANTANO, MADRILERA

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

21 urteren ondoren Jose Antonio Santanok uko egin dio alkate eta zinegotzi karguei, eta asteartean izendatu zuten Espainiako Gobernuako Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren estatu idazkari. Esker emate luzea egin zuen asteleheneko azken agurrean. «Irun beti bihotzean izango dut eta gora Irun», esan zuen hunkituta. Astelehenetik hasita, hamar egun ditu behin-behineko alkate Miguel Angel Paezek ezohiko bilkura batean alkate berria izendatzeko.

30 urte bete dira Kepa Ordoki hil zenetik

Asteartean bete ziren 30 urte Kepa Ordoki Gernika batailoiko komandantea zendu zenetik. Urteurren hori gogoan izateko, Ordokiren izena daraman talde memorialistak elkarretaratzea egin-

go du Irungo Gernikako Arbola parkean, bihar, 12:00etan.

30 urtean komandantearen gaineko oroimena «urrituz» joan dela Euskal Herrian azaldu du elkarteak, eta larunbateko omenaldia «ezinbesteko» dela adierazi du, «Irungo lider abertzalearen jarduna oroitarazteko».

EGUZKITZA HLHI
 PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

baikara

KALITATEA HEZKUNTZAN

DENOK BATERA EUSKARA AURRERA

Victoriano Juaristi, 1 IRUN 20304 Tel.: 943 89 91 61
 E-posta:013372aa@hezkontza.net www.eguzkitza.hezkontza.net

DENOK BERTIN, DENOK DESBERTIN!

Jordanetik Mediterraneo itsasorainoko Palestina askea aldarri

Fayez Badawi ekintzaile politikoak hitzaldia eman zuen astelehenean, Orereta Palestinarekin herri dinamikak antolatuta. Lepo bete zen Reina aretoa hura entzuteko.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Lepo bete zen Reina aretoa astelehenean, Fayez Badawi ekintzaile palestinarren hitzaldia entzuteko. PAHF Palestina Askatzeko Herri Fronteko kide ohia da, ekintzaile politiko, antifaxista eta antisionista, eta exiliatua da. Palestinako herriaren agurrarekin hasi zuen hitzaldia. «Basakeriaren gainetik zutik dirauen herria da Palestina. Suntsi ditzakete gure etxeak, gure eskolak, errotik moztu gure arbolak, baina bada suntsitu ezin duten zerbaite: gure borrokarako grina». Ziurtasun bete partekatu zuen Badawik hitzaldira bertaratutakoekin: «Ziur izan bukaerara arte borrokatuko dugula, independentziarako dugun eskubidea erdietsi arte». Sionismoaren aurka ari diren juduen jarrera txalotu zuen ondoren, «gure borroka ez da juduen aurkakoa, ezta semiten aurkakoa, gurea eskubide nazionalen aldeko borroka da baizik».

Ahoan bilorik gabe zerrendatu zituen Palestinaren etsaiak: «Munduko herri guztien etsaia den eta Ameriketako Estatu Batuak eta Europako Batasuna buru dituen inperialismoa, sionismoa eta Israel, eta Arabia Saudi buru duten indar atzerakoi arabiarrek».

Gazako zerrendan bizitzea zer den



Jakinmin handia piztu zuen Fayez Badawiren hitzaldiak. ORERETA PALESTINAREKIN

azaltzeko urriaren 7aren aurreko garaietara jo zuen Badawik. Gazako zerrenda Historian izan den «kontzentrazio esparru handiena» dela esan zuen. «365 kilometro koadroan 2.300.000 pertsona nekez bizi dira. Ateratzeko bide bakarra Rafah pasabidea zen aurretik; espetxeratuak gaude bertan edonon. Arrantzara itsasora atera eta hiru miliak gaudituz gero, tiro egiten dizute; berdin gertatzen da uzta jasotzera doazen nekazariei, baita kolonoek hesiaren beste aldetik tiro egin palestinarrei ere... Hori da eguneroa Gazan, eraman ezina».

Defentsarako eskubidea

Kolonoak izan zituen hizpide, ondoren. «Militarrak dira, israeldarrak ez dira gizarte zibila, kolono guztiak daude leporaino armatuta beraiena ez den lurralde batean. Ez datoz gure kultura ezagutzera, ez dira turistak, ez datoz gurekin era baketsuan bizitzera. Kolonoak etsaiak dira, egunero hiltzen dituzte palestinarrek, egunero egiten diete tiro emakume eta haur palestinarrei, palestinar izate hutsagatik».

Gazan latza da egoera, eta ez dago alde handirik ere Zisjordanian. Ghettoetan

bizi dira bertan: «Nazismoak eta sionismoak praktika berak erabiltzen dituzte. Astelehenean Jenin, aurreko egunean Nablus, aurretik Betleem... Armada sartzen da auzo batean, bonbardatzen du, herritarrak hil eta NBEk eta nazioarteak beste aldera begiratzen dute, ez da ezer gertatzen».

Eraso horien aurrean «erresistentziarako eskubidea» aldarrikatu zuen, irmo. Israel Palestinarekin egiten ari dena genozidioa dela salatu zuen, eta Israelgo Estatuko defentsa ministro Yoav Gallanten hitzak lehen lerroan jarri zituen: «Janaririk, urik, erregairik, edota elektrizitatek ez zuela iritsi behar Gazara esan zuen, 'hil daitezela animalien modura'. Eta zeinek mugitu du hatz bakarra adierazpen horien aurrean nazioartean? Inork ere ez. Estatu sionistak Gazako zerrendako etxeen %60 baino gehiago eraitsi du, ospitaleak bonbardatu ditu txikitzeraino mundu guztiaren aurrean, fosforo zuria erabili du... Hori da Israel, gizateriaren alde inoiz ezer egin ez duen asmatutako estatu bat. Genozidioa, exterminio politika, gizateriaren kontrako krimenak, ezabatze etniko sistematikoa da Israel».

Sionismoa, faxismoaren eta nazismoaren pare jarri zuen Badawik. «Zein diferentzia dago hiru horien artean? Bat bera ere ez». Lurrari lotuta bizi dela Palestinako herria esan zuen hitzaldian, eta horri balio handia eman zion Badawik, hizkuntza eta kultura mantentzeko eman zion bezain bestekoa: «Inoiz hizkuntza edota gure kultura galtzen badugu ez gara izango». Ekintzaileak, baina, ez du agertoki hori aurreikusten: «Gero eta lotuago gaude gure lurrari».

Palestinako Estatua aitortzea

Israelgo Estatuak helburu zehatza du, ekintzaileak salatutakoaren arabera: palestinarrak ezabatzea, hamaika saiakera egiten ari dela bide horretan berretsi zuen: «1.700.000 pertsona desplazatu dira jada, jendea eraikin-hondakinen gainean bizi da, manta batekin, lurra beraiena delako. Huts egin du sionismoak; ez du lortu Gaza hustea, hori delako bere plana, palestinarrak Sinaira joan daitezten. Guk ez dugu gure herritik atera nahi, ez dugu bigarren Nakba bat nahi, gure lurrari, gure herriari lotuta gaude, eta ez dugu utziko. Palestina berriro izango da 1948aren aurretik zena, eta erbesterratuak itzuliko gara, gure eskubidea delako». Ziurtasun osoz eta itxaropenez esan zituen hitz horiek, eta Israelgo Estatua zigortzera deitu zuen: «Nazioarteko zigor auzitegien aurrera eraman behar dute Israel. Palestinaren aurkako sarraskien aurrean eskubide osoa dugu kolonoiei alde egin dezatela esateko».

Aterabidea bakarra da. Hala dio. Ekialde hurbilean dagoen gatazkaren konponbidea, Palestinako Estatua aitortzetik helduko da haren hitzetan. «Palestinako Estatua Jordan ibaitik Mediterraneo itsasora, Jerusalem hiriburu duena. Ez dugu bigarren estatu bat onartuko, ez dugulako nahi gure ondoan sionista, faxista eta nazia den estatu bat; eta ez dugulako gure lurraren hondar ale bakarra ere oparitu». Galdera ere luzatu zien irtenbide gisa bi estatuen onarpena jartzen dutenei: «Zergatik oparitu behar dugu gure lurra? Bi estatuen aukera plazaratzen dutenei erantzungo diet: ondo bada, oparitu zuk zure etxea, eta segi zu errefuxiatu eremu batera bizitzera». ✕

Agintaldirako bide orria aurkeztu dute

2023-2027 urteen artean bide-orria izango duen agintaldi plana aurkeztu zuen gobernu taldeak joan den ostira-lean. Agertokia estreinatu zuen horretarako; datozen lau urteetan herriarentzat estrategikoak izango diren proiektuak Kultur eta Sormen Industrien Poloa izango den Agustinak eraikinean aurkeztu zituen.

Herri Arte Eskolako dantzariak harriera egin zieten bertaratu ziren berrehun bat lagunei. Tartean, kultura, hezkuntza, ekonomia, gizarte eta kirol munduko eragileak. Baita Oarsoaldeko herrietako alkate eta zinegotziak ere, Maddalen Iriarte EH Bilduren Gipuzkoako bozeramailea, eta udalerriko politikagintzaren ordezkari historikoak, tartean Xabin Olaizola Herri Batasunako alkate 1979-1983 agintaldian, eta Adrian Lopez PSE-EEko alkatea 1998 eta 1999 urteen artean, edota Errenterriako Udalera aldaketa ekarri, eta Aizpea Otaegiri aginte makila pasa zion Julen Mendoza (EH Bildu). Podemoseko hainbat ordezkari ere izan ziren, Pilar Garrido Podemos Euskadiko koordinatzaile orokorra, tartean.

Zazpi erronka nagusi

Aizpea Otaegi alkateak, eta Maite Gartzia (Elkarrekin Errenteria) eta Aitor Zorzano (EH Bildu) gobernukideek aletu zuten plana. Helburu behinena, «hobeto bizitzea, eta gure sentituko dugun herri partekatu bat eraikitzea» da Otaegik esan zuenez, eta bi horiek elkarren eskutik datozela. Horretarako, baina, ezinbestekoa da baldintzak sortzea: «Elkarrekin osatzen dugun komunitatea, gure eguneroko elkarbi-



HERRI BIZIA

zitzea, ez da berez sortzen. Guztiontzako oinarriko bizi baldintzak bermatzetik, komunitatearekiko atxikimendu edo pertenezia sentitzera».

Zazpi erronka nagusi izango dituzte: herri zaintzaileagoa, berdinzaleagoa, inklusiboagoa, kohesionatuagoa, jasangarriagoa, parte hartzaileagoa eta auzo biziagoak lortzea. Horiek lan leerro nagusiak. Horiek erdiesteko, berriro, 62 proiektu. Aurkezpenean ez ziztuzten denak azaldu, hogeitaino ez, «esanguratsuenak». Besteak beste, Fini Rubio adinekoentzako egoitza berri-tzailea martxan jartzea, indarkeria matxistaren ardura izango duten agenteen figura sortzea Udaltzaingoan, etxebizitza eskubidea bermatzeko politikak, Beraungo igerilekuetan urte osorako barruko kirol eremua sortzea, Barandiaran parkea eraikitzea, eta Galtzaraborda biziberritzeko plana aktibatzea.

Zer egiten den garrantzitsua bada, hori bezain garrantzitsua da nola egiten den. Horretan sakondu zuen Otaegik: «Orain arte bezala, bide hau, herri-tar eta eragileekin elkarlanean egin nahi dugu. Gainera, agintaldi plana garatzeko, hiru ardatzetan oinarritu dugu gobernatzeko modua, gertutasunez lan egitea, eraginkorrak izatea, eta errealtatea eraldatzeko gaitasuna izatea».





Bere sorkana gaur aurkeztuko du Urkizuk, udaletxean. Joseba Arratibel

Herriaren aurrean jarriko da gaur Patri Urkizu

‘Eskribu galduen bila’ liburua aurkeztuko du lezoarren aurrean 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. Sortzailearen autobiografia eta kultur kritikak jasota daude argitalpenean, besteak beste.

JOSEBA ARRATIBEL LADRON

Patri Urkizu gaur herritarren aurrean jarriko da. Askotan egina du ariketa hori. Gaurkoa, beharbada, esanahi berezikoa izango da harentzat. Lezoarrak egin duen lan berrienaren gaineko azalpenak emango dizkie herrikideei, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. *Eskribu galduen bila. Autobiografia eta kultur kritikak* liburua aurkeztuko du. Izenburuan euskarriaren nondik norakoak garbi agertzen dira, 600 bat orrialdeko sormen lana da.

Urkizuren eta harekin batera aurkezpenean izango diren azalpen hi-

tzek irudiak izango dituzte lagun gaurko agerraldi publikoan, proiektio bidez. 1946an jaiotako lezoarraren bizitzako hainbat pasarte daude jasota argazki horietan, aldi berean, Lezoko azken urteetako historia hobeto ulertzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Izan ere, frankismoaren ondorengo lehen alkate demokratikoa izan zen Urkizu 1978tik 1983ra arte. «Patrik, bere alkate lanetan, garbi zuen herritarren alkate baino gehiago, haien ordezkaria zela. Bere gertutasuna eta apaltasuna nabarmenduko nituzke. Patrik egindako lana guretzako ispilu da», adierazi du Mikel Arrutik, Lezoko alkateak.

Eskribu galduen bila. Autobiografia eta kultur kritikak ez da bakarrik Urkizuren bizitzaren eta lanaren berrikuspena. Bertako edukia estu doa lotuta herriarekin, Lezoko euskara, kultura, izaera eta ohiturekin. Pista gehiago eman baino, hobe izango da gaurko agerraldira hurbiltzea, Urkizuren hitz gozoen bitartez errazago izango delako lan horren mamia ezagutzeko. ✕



Inigo Esnaola

Bi urteko lanen ondoren, bihar, festa Ibai Ondon

Ibai Ondo eraikina berregokitzeko lanek bi urte iraun dute. Horiek ia-ia bukatu dituztela jakinarazi dute. Hartara, egoitza berritua erabat txukun uzteko, herriri nola gelditu den ezagutarazteko, eta herri giroan lanen bukaera ospatzeko festa egingo dute bihar (larunbata) Ibai Ondon bertan.

Hasteko, 09:00etan, eraikina erabat garbi uzteko auzolanarekin hasiko dira. 12:00etan dena txukun-txukun dela, ate irekien jarduera egingo dute herriko eraikin ezagunaren barrualdea nola gelditu den ezagutarazteko. 14:00etan, berriro, aro berriko lehen herri bazkaria jasoko du edifikioak; txartelak Tiñelun eros daitezke. Eta eguna bukatzeko, 17:00etan, Traband taldearen emanaldia Ibai Ondoko sotoan.

Aiton Bordaren bazkarirako txartelak

Hilaren 15ean bazkaria egingo dute Aiton Bordan. Bertako Olinpiar Jokoen bukarako ekitaldia izango da, eta Euskal Parrillako kideak arduratuko dira jakiak prestatzeaz. Bazkarirako tiketak erretiratuen egoitzan bertan erosi behar direla oroitarazi dute arduradunek, astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 11:30era. 25 euroko prezioa dute.

Etxetxoren auzolana, asteazkenean

Iparragirreko barrakoiaren eremua garbitzeko eta Memoriaren Basoa elikatzen jarraitzeko, auzolanera deitu ditu herritarrak beste behin Etxetxok, Lezoko Memoria Historikoaren Taldeak. Hilarren 6rako (asteazkena) egin dute herriko ondare historikoa zaindu eta ezagutarazteko proposamena. 09:30ean elkartuko dira inizatibarekin bat egiten dutenak, Tiñelun.



Urmaela herritarren artean eraiki dute

Igandean Lezoko institutuak antolatutako auzolanera 90 pertsona inguru bertaratu ziren. Jardueraren helburua urmael bat eta tximeletentzako oasi bat egitea izan zen. Horretarako, lezoar guztiei zabaldu zieten gonbita, elkarrekin ingurumen eta hezkuntza gunea sortuz.

Aranzadi Zientzia Elkarteke Ion Garinen eta Neikerreko Aitor Cevidanes adituen eskutik parte hartzaile guztiek

gaiaren gaineko azalpenak jasotzeko aukera izan zuten lanari ekin aurretik. Hala ere, Lezo Institututik azaldu dute aurreko ostiralean DBH1 eta DBH2 mailako ikasleek lan handia aurreratu zutela auzolaneko kideak igandean urmaelera heldu aurretik. Zerynthia elkartearekin eskutik, tximeleten oasiaren inguruan jardun zuten eta Altamirakoa sortu zuten. Taldeka hainbat zeregin burutu zituzten, besteak beste: fruta-arbolen landaketak, baratzearen txukunketa edo loreontzietako landaketak.

Gainera, DBH4ko ikasleek, pertsona asko bildu zirela aprobetxatuta, ikas bidaierako postua jarri zuten eguna musikarekin girotuz eta mokadutxoak eskainiz. Ondoren bazkaria egin zuten Altzate Auzo Elkartearen egoitzan.

Institutuak eskerrak eman dizkie parte hartzaile guztiei, eta Zubitxo Guraso Elkarteari, Altzate Auzo Elkarteari, Lezoko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari.



Urko Etxebeeste

Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

LEZO INSTITUTUA



LEZO
INSTITUTUA



Lezo
Herri Eskola

HAZI, HEZI ETA BIZI EUSKARAZ

Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus

Oiartzungo Udalak aitzindari izango den zerbitzua jarri du martxan, herriko lehen sektorea babestu eta indartze aldera: nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatiegietako baja edota oporrak kubritzeko zein laguntza behar duten jardueretarako langile bat kontratatu dute. Behehemendi Landa Garapen Elkartearen bitartez egin dute kontratazioa, eta hilabete honetan bertan hasi da zerbitzu hori ematen.

Izan ere, Oiartzungo Udalak zehaztu duenez, lehen sektorean aritzen direnek nekez dute atsedenerako tarterik: ukui-lu, larre, baratz eta bestelakoen zaintza ezin da alde batera utzi. Zerbitzu berriarekin, lan-karga ahal den neurrian arindu nahi du udalak. Ibon Mitxelena Ekonomia Sozialeko zinegotziak azaldu duenez, herriko Biziraun mugimenduan engaiatuta dauden nekazari, abeltzain eta baratzezainek egin zioten eskaera udalari. Aztertu ondoren, baieztokarekin erantzun zieten. Erabakiari testuingurua eman dio Mitxelenak: «Lehen sektorea egoera prekarioan dago gauza askorengatik. Adibidez, esplotazio txiki eta handien arteko desorekarengatik. Udalak elikadura subirauntzaren aldeko apustua egiten du, eta ekoizle txiki horiek denboran irautea nahi dugu. Sinisten dugu herri batek bere burua elikatzeke gai izan behar duela, eta beharrezkoak dira horrelako politikak».

Zerbitzuak «babes bat» emango diela ziurtatu du zinegotziak, bai eguneroko jarduneko oporraldiak edo bajak ordeztetako garaian, baita egun konkretu batzuetan laguntza jaso ahal izateko ere. Izan ere, Mitxelenaren arabera, lehen sektoreko langileen jarduna «bakartia» izan ohi da askotan, eta bi esku gehiago behar izan ohi dituzte zeregin konkretu batzuetarako. Gaineratu duenez, lehen sektoreko langileen eskaerak bat egiten du udalak duen strategiarekin. «Uztartu egiten dira batzuen beharra eta besteon ikuspuntua».

Zerbitzu berriak lehen sektoreko 0,5 Nekazaritzako Lan Unitate baino gehiagoko ustiategietan (34 daude Oiartzunen) langileak aldi baterako ez egoteko irtenbide praktikoa eskainiko du. Doakoa izango da, udalak bere gain hartuko



Herriko nekazari eta abeltzainak, udaleko ordezkariekin. HITZA

Nekazari eta abeltzainek oporrak har ditzaten

Oiartzungo Udalak zerbitzu berria jarri du martxan: lehen sektoreko bajak eta oporraldiak ordezteko zein eskulan estra eskatzeko aukera. Sektore «derrigor» zaindu beharrekoa da udalarentzat.

baitu zerbitzuak sortzen dituen gastuak. Oporraldietarako, ospakizun berezi bat dutenean edo bajaran daudenean eskatu ahal izango dute laguntza, baita eskulan gehigarria behar dutenerako ere, ustiategiaren titularrarekin elkarlanean aritzeko.

Hamar egun urteko

Ustiategi bakoitzak urtean hamar egunez izango du zerbitzua erabiltzeko aukera. Gaixotasun batek eragindako bajen kasuan kopurua luzatzeko aukera ere aztertuko du Oiartzungo Udalak. Gehienez sei egunez jarraian eta egunean zortzi orduz eskainiko da zerbitzua. Zalantzaren bat edo informazio gehiago nahi izanez gero Behehemendi elkartearekin jarri daiteke harremanetan, 943 49 02 19 telefono zenbakira deituta.

Zerbitzu berriarekin, nekazarien pre-

sioa eta lan-karga arintzeaz gain, denentzako ingurune «iraunkorragoa eta opa-roagoa» sortzen lagunduko duela ziurtatu du udalak.

Izan ere, Oiartzungo Udalarentzako lehen sektorea edota elikadura «strategikoak» dira. «Derrigor zaindu beharrekoak», Mitxelenak zehaztu duenez. «Horrelako inizatibekin, sektorea zaintzen duzu, baina bertan lan egiten duten pertsonak ere. Modu horretan, esplotazio horiek denboran errentagarriak izan daitezke, baina baita iraunkorrak ere», gaineratu du zinegotziak. Lehen sektorearen egoera delikatuak horretara biderratu du udala: «Ez baditugu zaintzen, jai daukagu. Azken 50 urteetan lehen sektorean egon den gainbehera izugarria izan da, eta ekonomian duen garrantzia asko txikitu da. Baserriak zein esplotazioak ere gutxitu egin dira». ✕

Arditurriko murala osatzeko, azken saioa

Alaia Gaztelumendi Alaiart artista oiartzuarrak murala diseinatu zuen, eta Arditurriko meatzeetan lan egin zuten gizon eta emakumeei aitortza egin nahi diete irudi horrekin. 60 metro koadroko mosaikoa osatzeko lanetan aritu da Alaiart, eta azken saioak herritarrekin batera egingo ditu. Auzolanean aritzeko azkeneko aukera etzi —hilak 3— izango da.

10:30etik 12:30era bitartean arituko dira Arditurri. Saioan parte hartzeko aurretik izena eman behar da 943 49 01 42 telefono zenbakira deituta, edo udalaren posta elektronikoa helbidera idatzita (oiartzun@oiartzun.eus). 12 urtetik gorako edozein oiartzuarrak hartu dezake parte etzi meatze gunean egingo den saio horretan.

Bretainiako diwan bat laguntzera deitu dute

Oiartzun-Karaez senidetza sareak elkartasunerako deia egin die oiartzuarrei. Izan ere, azaroaren 1 eta 2aren arteko gauean, Gwisseniko diwaneko eraikinarren teilatuak eta markoak ezin izan zituzten jasan 190 kilometro orduko haize boladak. Eskolak bretoi hutsean ematen duten eskolako ikasgelak eta administrazio bulego guztiak erabiliezinak dira geroztik.

Hautzaro Ikastolak, AEK-k eta Oiartzun-Karaez komiteak kanpaina ekonomiko bat abiatuko dute, biltzen den dirua Gwisseniko diwanak jasan dituen kalteak konpontzeko. Parte hartzeko informazioa, oarsoldea.hitza.eus-en.



DIWAN BZH



HITZA

HEGEMONIKOA DESERAIKITZEN

E. GARTZIA

Oiartzungo Udaleko 56 langile eta bost zinegotzi trebakuntza ikastaroa jasotzen ari dira. Maskulinitate hegemonikoa deseraikitze saioak izaten ari dira, hamar ordukoak. Udalaren arabera, jasotako maskulinitate eta feminitate sexista hegemonikoa deseraikitzea «ezinbesteko ardatza» da berdintasuneko eta indarkeriarik gabeko gizartea lortzeko. Izan ere, «esparru guztietara» zabaltzen dira, udalaren ustez, maskulinitate eta feminitate «sexistak».



Imanol Saiz

Adimen artifizialarentzat oiartzuarren ahotsa

Euskararen Astearen barruan, hainbat ekitaldi egiten ari dira Oiartzunen. Bihar, Gaitu proiektuari ekarpena egiteko saioa egingo dute. Ahotsa jarri behar dute oiartzuarrek, adimen artifizialari euskara irakasteko. Goizez 10:00etatik 13:30era bitartean izango da aukera, eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara.

Horrez gain, Euskararen Astearekin lotutako beste bi ekitaldi izango dira as-teburuan. Bihar gauean Hamabi taldeak eta Bengok kontzertua emango dute Landetxan. Sarrera guztiak agortuta daude. Etzi arratsaldean, 19:00etan, *Kanpora sartzen* antzezlanaren taularatuko dute auditorioan, Oiartzungo Antzerkizaleen elkarteak eta Harri Beltzak antolatuta. Txartelak sarrerak.oiartzun.eus webgunean eskura daitezke.

Teatro fisiko tailerra, Gabonetan berriro

Teatro fisiko laborategia antolatu dute, beste behin, Gabonetarako. 38 orduko tailerra izango da, narrazioa eta lengoai zinematografikoa antzerkian landuko dituzte, Lander Garrorekin. Informazio gehiagorako 647 91 55 92ra deitu edo desaires.teatro@gmail.com-era idatzi.



Olatz Diaz eta Estibaliz Valencia 'Puzker Itzela' liburuarekin aurkezpenaren egunean. HITZA

‘Puzker itzela’, umeeek umeentzako sortutako liburua

Estibaliz Valencia irakasleak eta Olatz Diaz ilustratzaileak hurrei begirako ipuin bat argitaratu dute Denonartean argitaletxearekin. Aniztasunaren gaia islatu nahi izan dute, haurren begiradatik.

MIKEL DEL VAL

Estibaliz Valencia antxotarra eta Olatz Diaz errenteriarra irakaslea eta ilustratzailea eta arte zuzendaria dira, hurrenez hurren. Lagunak dira, kuadrillakoak, eta bakoitzak bere esparru profesionalean duen esperientzia baliatuz, hurrei begirako liburu bat argitaratu berri dute, Denonartean argitaletxearekin. Valencia testuez arduratu da, eta Diazek ilustrazioak egin ditu. Emaitza honakoa izan da: *Puzker itzela*.

Bi emakumeek elkarlanean egin duten lehen lana, baita Valenciaren lehen libu-

rua ere, eta esperientzia «oso polita» izan dela aitortu dute. Diazek, aldiz, aurrez eginak zituen liburuen ilustrazioak, baina lehen aldia izan da umeei begirako marrazkiak egin dituenak. Biak «oso pozik» azaldu dira emaitzarekin, eta jende-ari «asko» gustatu zaiola esan dute.

Ikusi besterik ez dago liburua aurkeztu zuten egunean Errenteria-Oreretako Xenpelar Kultur Denda goraino bete zela. *Puzker itzela* hilaren 17an aurkeztu zuten han, eta jende andana gerturatu zen. «Oso eskertuta gaude, bihotza beteta daukagu», esan du Valenciak.

Egileak ez dira ausartu esatera zein adin tarteko haurrentzat den egokia li-

burua, baina Valenciak azaldu du bi urteko haurrekin egin duela irakurketa proba. Dena den, zortzi urteko haurrentzat ere egokia izan daitekeela iritzi du, mezua ulertzen dutelako: «Bi urteko gelan kontatu dut. Adin horrekin ez dute testua ulertuko, baina marrazkiak erakartzen hasten zaizkie. Lau eta bost urterekin mezua ulertzen hasten dira, eta seitik zortzira, irakurri eta mezua ulertzen dute. Horregatik du adin tarte zabal».

Aniztasuna ardatz

Valenciak sei urtez egin zuen lan Errenteria-Oreretako Telleri ikastetxean. Pandemia garaian eta Liburuaren Egunaren harira, bost urteko umeei ipuin bat sortu zuen gelan, eta ikasleek istorio bat osatzeaz arduratu ziren. Valenciari emaitza «asko» gustatu zitzaion, eta kopia bat eraman zuen etxera.

2021eko udan, liburuarekin gogoratu zela zehaztu du. Kaxoitik atera eta buelta batzuk ematen hasi zen. Azkenean, gustatu zitzaion testua idatzi zuen, eta liburuari forma ematen hasi zen. Valenciak adierazi du «umeei umeentzako»

sortutako liburua dela. «Gustatzen zait haiek nola ikusten mundua, aurreiritzirik gabe, epaitu gabe», esan du. Ideia garatua zuela, Diazi zuzendu zitzaion laguntza eske, eta «erronka» luzatu zion. Hark onartu egin zuen, eta «oso gustura» aritu dela baietsi du.

Istorioko protagonistak tximeleta bat eta mofeta bat dira. Pertsonaia horiekin aniztasunaren gaia islatu nahi izan dute, hori baita liburuaren ardatza. Aniztasuna denbora askoan gizartean «tabua» izan den gaia dela adierazi du Valenciak, eta hari keinu egin nahi izan diote: «Uste dut txikitatik landu eta normalizatu behar den gai bat dela».

Denonartean argitaletxeak «apustu» egin aurretik, bi lehiaketatan aurkeztu zuten proiektua, baina ez zuten saritu. Hori dela eta, Valencia Mariasun Landa idazlearekin jarri zen harremanetan, eta hark esan zion «lan polita» zutela esku artean. *Puzker itzela* liburuak argia ikusi du, eta Elkarri afiliatuta dauden dendentan eros daiteke. Durangoko Azokan ere izango direla aurreratu dute. ✕

Establezimenduetan euskara sustatzea xede

Pasaiaiko Udalak eta Laurak Bat Merkatari, Ostalari eta Zerbitzu Elkarteak herriko euskararen erabilera handitzeko elkarlanean dihardute. Helburu hori lortzeko bidean, establezimenduetan lehen hitza euskaraz egiteak asko laguntzen duela adierazi du udalak. Hori dela eta, «Pasaiaiko merkatari eta ostalariak gutxienez lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu eta elkarriketak euskaraz hastera» gonbidatu nahi dituzte.

Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu duten establezimenduek *Hasi* hitza daramaten bereizgarriak jarriko dituzte komertzioetan. Bezeroak ere lehen hitz hori euskaraz egitera animatu nahi dituzte. Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartzen duten establezimendu guztiek har dezakete parte egitasmoan. Laurak Batekin edo udaleko Euskara Sailarekin jarri behar dira harremanetan.

Illunbek hitzordua du bihar San Pedron

38. Musika Abesbatza Astearren barruko emanaldiak ari dira egiten San Pedron, eta horren harira hitzordu berri bat ezarri dute, musika ardatz. Illunbe orkestra sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur San Pedroko elizan, 20:00etan hasita. Orkestrarekin batera aritzeko Asgarth taldeko Asier Enbil abeslari sanpedrotarra (beheko irudian) gonbidatu dute. Beraz, emanaldi berritzailea izango da.



HITZA

EA EA EA
EUSKARAREN TALDEA

Karmengo Ama IPI

Ulia Etorbidea z/g
20110 Trintxerpe - Pasaia
Tlf: 943 899 248 - 688 629 924
zuzendaritza@ipikarmengoama.eus
www.ipikarmengoama.eus

HILAK 1, OSTIRALA

Musika

Hondarribia. 19:00etan, Kale Nagusi-ko elizan, Ignacio Arakistainen eta Mikel Ansolaren organo kontzertua.

Irun. 20:00etan, Junkaleko elizan, Ali-ze Mendizabalen organo kontzertua.

Bestelakoak

Irun. 18:30ean, San Juan plazan, Eguberrietako argiak pizteko ekitaldia.

Irun. 18:30ean, Palmera Monteron, Korrika Batzordearen bilera irekia.

HILAK 2, LARUNBATA

Musika

Irun. 19:00etan, Amaia KZn, Nayade Abesbatzaren kontzertua.

Hondarribia. 19:30ean, Itsas Etxean, eta Gipuzkoa Gazte Tour 2023ren barruan, bost talderen kontzertua: Zilibito Records, Zahra, Txiltxoko, Tual Msk eta Skubi. 3 euro.

Pasaia. 20:00etan, Trintxerpeko Mogambo aretoan, Sonambula, Anker eta Zurbeltz taldeen kontzertua. 8 euro.

Ikus-entzunezkoak

Irun. 16:00etan, Mendibil zinemetan, euskarazko zinema: *Yoko porretan*.

Bestelakoak

Irun. 10:00etan, Txingudi Ekoetxean, *Plaiandi ezagutzen* ibilbide gidatua.

Oiartzun. 10:00etan, Done Eztebe parrokia ezagutzeko bisita gidatua; 12:00etan, Arizmendiena ezagutzekoa.

Errenteria-Oreeta. 10:00etan hasita, Koldo Mitxelena ikastetxearen jolastoki estalian, Mindara elkartearen elkartasun azoka.

Errenteria-Oreeta. 10:30ean, Lekuona Fabrikan, *Eutsi gazte zure adimenari* tailerra, 60 urtetik gorakoentzat.

Errenteria-Oreeta. 11:30ean, Lekuona Fabrikan, 2-5 adin tartekoentzat ipuin kontaketa Amaia Puinekin.

Irun. 12:00etan, Gernikako Arbola parkean, Kepa Ordokiri aitortza egiteko ekitaldia.

HILAK 3, IGANDEA

Dantza

Errenteria-Oreeta. 18:00etan, Niesenen, Igandeak Dantzan egitasmoaren urteko azken saioa.

Antzerkia

Lezo. 19:00etan, Gezala Auditoriumean, *Lagun beltz asko* antzezlan, Ados Teatro konpainiarena. 8 euro.

Musika

Hondarribia. 08:00etan, Puntalean, Hondarribiko Txistu Taldearen alborda.

Ikus-entzunezkoak

Irun. 16:00etan, Mendibil zinemetan, euskarazko zinema: *Dardara*.

Bestelakoak

Irun. 10:30ean, Palmera Monteron, Bidasoaldeko Ekonomia Feminista Eskolaren aurkezpena.

Irun. 11:00etan, Txingudi Ekoetxean, *Lurraren arrasean* izeneko tailerra famulientzat.

ERAKUSKETAK

Errenteria-Oreeta. Xenpelar Etxean, Errenteriako Argazkilaritza Taldeko ki-deen Enfokaz erakusketa dago jarrita, larunbata arte. Gaur eta bihar 17:00etatik 20:00etara zabalik.

Errenteria-Oreeta. Jantziaren Zentroan, baserriarren jantziekin erakusketa dago jarrita. Larunbatetan 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 tartetan da zabalik; igandetan goizez bakarrik.

Irun. Oiasso Museoa, Emakume arkeologoak Gipuzkoan erakusketa dago jarrita 2024ko martxoaren 31ra arte. Bisita ordutegia: astearte, asteazken, ostegun eta igandetan: 10:00etatik 14:00etara; ostiral eta larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Irun. Menchu Gal aretoan, Elena Mendizabalen *Ley propia* erakusketa ikus daiteke hilaren 12ra arte. Bisita ordutegia: ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara; igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

EUSKARAREN EGUNA

Bidasoa eta Oarsoaldea. Hemen agertzen diren ekitaldiez gain, Euskararen Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dira herri guztietan asteburuan. Horien berri izateko joan astekari honen 44. orrialdera.

Abenduak 2

DOAN

17:30ean, Pasai Antxoko kultur etxean

LA ANUNCIATA IKASTETXEKO LH2 ETA LH3KO IKASLEEK AUKERATUTAKO PELIKULA

IZEN-EMATEA HEMEN

<https://labur.eus/zinema>

ZINEMA TXIKIA

JOANA III.a

edo Nafarroako Erregina protestantea



1555ean, Joana III.ak Nafarroako koroa oinordetu zuen, eta honekin batera 1512ko konkistaren ondoren subirano mantendu zen erresumaren eremua, Biarnoko bizkonderria eta zenbait jabego Frantziar Erresuman zehar.



Bere amak, Margarita Nafarroakoa, Heptameronaren idazlea, Calvin eta bere jarraitzaile protestanteei babeska eskaini zien, eta bere ideietara hubildu zen.



Margarita Nafarroakoa (1492-1549)

Joana III.a haratago joan zen, eta protestantismora batu zen 1560an. Hau espainiar eta frantziar erresumentzat aitzaki berria bihurtu zen Nafarroa guztiz menpeatzeko helburuarekin tartean erregina hil eta bahitzen saiatu zirelarik.

Nafar erregeak berak 1562an hil baino aurretik traizioa adostu zuen espainiarren mesedera. 1569an, Frantziako erregeak Joana III.aren jabego guztiak konkistatu zituen, baina nafarrak, La Rochelletik Sorospen Armada antolatu zuen protestante frantsesen laguntzaz denak askatzeko.

Antoni Borbota



Lukuzeko konde traidorea bereziki krudela izan zen Nafarroan eta Biarnon, eta mendietan ezkutaturik bukatu zen.

Aparantseko jauna, Erregearen gobernadorea



Erreforma protestantearen barnean, nafar erreginak Orthezeko Unibertsitatea sortu zuen, eta Testamentu Berria euskaratzea agindu zuen. Joanes Leizagarra arduratu zen, Beskoitzeko semea, eta 1571ean argitaratu zuten.



Erligio Gerrekin bukatzeko, 1572an Joanak Henrike semearen ezkontza adostu zuen errege frantsesaren arrebarekin. Baina nafar erregina zendu zen, pozoitua dirudenez, eta Henrike bahitu zuten, protestanteen aurkako San Bartolomeko sarraskiaren bitartean. 1576an ihes egitea lortu zuen askenean.

Catalina de Medici frantses erregea



Euskararen Kriselluak suaren argitasuna eta berotasuna dakarkigu, euskarak gure etxean duen tokiari buruz hausnartzeko une bat eskainiz. Euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu dugun hizkuntza da, eta kate luze horretan kate-begi bakoitzak ezinbesteko funtzioa izan du gaur egunera iristeko. Etxeko txikiei beraz transmititzeko ardura, beraz, denona da. Etxeko hizkuntza ohiturek eta jarrerak sekulako eragina dute euskararen erabileran eta helduok eredu garela kontuan hartu behar dugu.

Euskararen Kriselua etxez etxe doan sua da. Kriselua etxez aldatu ahala euskararen garra piztuta izateko ardura partekatu nahi dugu.

hondarribia.kriseilua.eus

ekitaldia:

ITSAS ETXEA
AUDITORUMA
Abenduak 1
18:00-19:30



HEZKUNTZA



LABORAZIA



egiluze



EUSKARAREN EGUNA

2023

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS



Bizi-bizi

Euskararen Eguna da etziko. Hizkuntzaren erabileran fokua jarrita dagoenean, gazteei begira daude asko, haien bizitza ohiturengatik euskara albo batera utzi dutelakoan. Beste era batera beharbada, baina bizi-bizi dago haiengan ere euskarari hauspoa emateko grina.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**Euskara
Zaindu!**

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

www.goieko.com



Gazte taldeak, euskarari arnasa ematen

Gaur Oarsoarrak Sariak banatuko dituzte Oiartzungo Landetxan, 19:00etan. Kolektiboen atalean, Oarsoaldeko gazte talde euskaltzaleei egingo zaie aitortza euskararen alde egiten duten lanagatik.

MIKEL DEL VAL

Gaur 2023ko Oarsoarrak Euskararen Sariak banatuko dira Oiartzungo Landetxe eraikinean, 19:00etan. Norbanakoen atalean Antton Valverde abeslari oiartzuarrak jasoko du errekonozimendua. Kolektiboen sailean, aldiz, Oarsoaldeko gazte talde euskaltzaleentzat izango da saria. Oarsoarrak Euskararen Sariak euskararen normalizazioan urrats esanguratsuak egin dituzten norbanako, elkarte, lantoki, erakunde edo taldeei egiten diete aitortza. Aurten, sariketa-
ren epaimahaiak hala erabakita, Errenteria-Oreretako Oreretako Gazte Asanblada, Lezoko Piztu Lezo, Oiartzungo Biyurrienea, eta Pasaia Antxoko Topagunea, Papineko Gazteria eta Trintxerpeko Korkoiburuak taldeak sarituko dituzte.

Sei taldeek beren herrian bideratzen dute jarduna, eta bakoitzak bere berezi-

tasunak baditu ere, bi ezaugarri komun dituzte: gazteengandik eta gazteentzako sortzen edo antolatzen duten jarduna euskaraz egiten dutela normaltasun osoz, eta euskararen aldeko parte aktiboa hartzen dutela beti. Hau da, euskaraz eta euskaratik sortutako elkarteak dira, eta berau sustatzeko ahalegin bizian dihardute, egunero.

HIZKUNTZEN KALE ERABILERA

Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko udalerrien egoera soziolinguistikoaren azterketarako eta bertan euskararen biziberritzearen alde esku hartzeko bideen gaineko proiektuak gauzatzen ditu, metodo zientifikoak erabiliz. Garatzen dituen proiektuen artean, hizkuntzen kale erabileraren neurketak daude. Azken eguneraketa 2021ekoa da, eta Oarsoaldeko lau udalerrietako euskararen kale erabileraren datuak, oro har, kezkarriak dira. Gipuzkoako euskararen kale erabilera %30,6an kokatzen da. Oiartzunek erraz gainditzen du zenbateko hori (%53,3) eta Lezo datu horietan dago (%30). Errenteria-Oreretako eta Pasaia datuak, aldiz, apalagoak dira, %10,9 eta %19,1, hurrenez hurren.

Pasaian izan ezik, zenbatekoa sei puntutan igo delako, gainontzeko udalerrietako datuek nabarmen egin dute behera: Errenteria-Oreretan, lau puntu; Lezon, bi puntu; eta Oiartzunen, bost puntu.

Kezkagarrienak, hala ere, 15-24 urte bitarteko gazteei eragiten dizkieten datuak dira, udalerrri bakoitzeko erabilera datuen batez bestekotik behera baitaude. Datuak kezkarriak dira, bai, euskararen kale erabilera nabarmen jaitsi baita Oarsoaldean. Hala ere, Oarsoarrak Euskararen Sariak erakutsi dute etorkizuna badagoela, zeri heldu badagoela, lau udalerrietan euskara biziberritzeko lanean gogor ari diren gazte taldeak baitaude. Gaur jasoko dute aitortza hori Landetxan. ✕

2023ko Lezoko Gazte Eguneako argazkia da honakoa. Irailaren 9an egin zuten, Piztu Lezok antolatuta. **Urko Etxebeste**



«Gure asmoa da euskara indartzea gazteon inguruan»

Adur Zubieta

Oreretako Gazte Asanblada

Errekonozimendua jasotzea harri-dura izan da taldeko batzuentzat, baina harro gaude. Gure helburuetako bat den gauza baten gaineko aitortza jasotzeak esan nahi du helburu hori bete dugula. Harro eta pozik gaude. Guk helburuak finkatzen ditugu, eta horien artean euskara sustatzea dago. Gazteon artean gaztelaniak euskarak baino indar handiagoa du, eta gure xedea da euskarak pauso bat aurrera ematea.

Gure ekintza guztiak euskara hutsean dira, euskara da garrantzitsuen. Gure jarduera guztietan euskaraz egiten dugu. Euskal Herrikoak gara, euskaldunak, eta gure ama hizkuntza euskara da. Guretzako oso garrantzitsua da euskararen erabilera. Azken urte hauetan ikusi da euskara indarra galtzen ari dela, eta horren aurrean, gure asmoa da euskara indartzea gazteon inguruan.



«Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasa gara»

Ainhoa Salaberria

Piztu Lezo

Oarsoarrak Saria egiten dugunaren ondorio eta errekonozimendua da. Guretzako ohorea da norbaitek aitortza hori ematea. Guk ez ditugu ekintzak antolatzen norbaitek aitortzean; baina ikusi dugu bide onetik goazela, lan handia dago atzetik.

Herrira aktibatu eta biziberritu nahian sortu ginen 2014an. Gure jarduera gazteetatik sortzen da, baina ez dugu gazteetara mugatu nahi, herrira begirako ekintzak proposatzen ditugu beti, parranda girokoak eta kulturalak.

Ekintza guztiak euskaratik eta euskaraz dira, hori da gure ardatza, euskara da gure iparrorratza. Egiten ditugun ekintza guztiek euskara dute muinean, euskararekiko jarrera guztiz aktiboa dugu. Euskararena hautu kontzientea da, ez da ausaz gertatu. Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasa gara.



«Gure ekintza guztiak euskaraz egiten ditugu, gure oinarrietan dugu»

Beñat Felipe

Biyurrienea

Sorpresa izan da guretzako saria jasotzea, ez baitugu inoiz enfasi handiegirik egin euskara sustatzeko. Hala ere, Biyurrieneak bere izaeraren inguruko dekalogoak ditu, eta beti garrantzia handiena euskarari ematen diogu.

Guk ekintza guztiak euskaraz egiten ditugu, gure oinarrietan dugu idatzita. Dena euskaraz egiten badugu ere, ez genuen espero errekonozimendua, ez baitugu enfasi berezirik egiten euskarazko alternatibak eskaintzeko; guk horrela sentitzen dugulako antolatzen ditugu euskaraz. Asko poztu gaitu aitortzak, kanpoan ikusi da egiten duguna.

Euskaldunak garenez, alternatiba euskaldunak disfrutatzeko eremu euskaldunak sortu behar ditugu, antolatzen ditugun jarduera horiek euskaraz egiteko aukera edukitzeko eta gazteek herrian zer egin izateko.

Gaitu proiektua

BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI
LOKALAK
INDARTZEN

gaitu.eus

Erronka berri bat dugu euskaldunok.
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.
Mundu digitalean euskaraz bizi ahal gaitzen.

SARTU WEBGUNEAN ETA EMAN ZURE AHOTSA





«Helburua izan da euskararentzat arnagune bat izatea»

Lide Olalde

Antxoko Topagunea

Gazteak ikusezinak izaten gara herrietan, eta saria jasotzeak esan nahi du norbaitek ikusten gaituela. Askotan herritik etortzen ez den eskertza hori Oarsoarrak Sarrrietatik etorri da. Eskertuta gaude, ikusi dugu egiten dugunak baduela eragina.

Euskararen alde egitea ezberdina da testuinguruaren arabera. Antxo ez da herri euskalduna, eta guk euskaraz hitz egitea bada erresistentzia bat jartzea. Antxo bezalako herri batean aisia euskaraz izatea, euskararen alde zerbait egitea dela iruditzen zaigu. Euskara gure jardueren muinean dago, dena euskaraz egiten dugu.

Ekainean hamar urte beteko ditu Antxoko Topaguneak. Hasieratik helburu nagusia izan da euskararentzat arnagune bat izatea, euskaratik eta herritik sortua. Herri hutsune bat zegoen, eta hutsune hori bete dugu.



«Euskararen erabilera normalizatzen dugu, era naturalean»

Liher de la Fuente

Papineko Gazteria

Poza sentitu dugu errekonozimendua jasoko dugulako. Oarsoaldean ez genekien gure berri zutenik ere. Guk Antxon jarria dugu fokua, eta Antxotik harago ez dugu inoiz ezer egin. Hori dela eta, poza izan da jakitea Oarsoaldean ere entzuten dela zertan ibiltzen garen eta errekonozimendua jasotzea.

Ez dugu ezer zehatza egiten euskara bultzatzeko, ez dugu zerbait espresuki prestatzen euskararen sustapenerako. Uste dugu gauza horiek askotan kontrako efektua izaten dutela eta bilatzen denaren aurkakoa lortzen dela. Egiten duguna da euskararen erabilera gure barne komunikazioan eta antolakuntzan normalizatu, era naturalean. Ez da zerbait pentsatua.

Herria girotzeko eta herriari bizia emateko sortu ginen. Parranda giroko eta kultura eta kirol arloko ekintzak antolatzen ditugu.



«Lanean jarraituko dugu herria euskalduntzeko»

Ane Perez

Trintxerpeko Korkoiburuak

Ez genuen espero saria jasotzea. Gure helburua herria sortu eta bartztea da. Proiektua hain handia egin izana eta jendeak gu errekonozitzea pozgarria da. Horrelako proiektuetan zaila da jendea inplikatzeko, eta oso pozik gaude, energia txute bat izan da. Gure gazteei zuzendutako lanean eta euskara bultzatuz hasi ginen, behar bat antzeman genuelako Trintxerpen; baina egun, helburua da haur, gazte eta helduengan eragitea, familiak batzea eta guztion artean euskaraz ondo pasatzea. Euskara sustatzeaz gain, euskaraz ez dakien jende hori ere erakarri nahi dugu, euskara asko ez dakitenen parte hartzea ere bilatzen dugu.

Lanean jarraituko dugu herria euskalduntzeko eta gazteon artean euskara eta herri giroa zabaltzeko. Trintxerpetarrek gurekin duten jarrera ere eskertzen dugu, taldea herri guztiarena da.

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Erreterria

Tel.: 943 510 450

donbosco@fpdonbosco.com

www.fpdonbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



Lanbide heziketa baino askoz gehiago





“Gehiago hitz egin beharko genuke helduei buruz”

JAIME ALTUNA ETNOLOGOA

‘Hizkuntzaren funanbulistak’ izeneko tesia publikatu berri du EHUko irakasle eta etnologo hondarribiarak. Nerabeek eskolatik kanpo dituzten hizkuntza ohiturak aztertu ditu, haiekin.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA
HONDARRIBIA

Urte luzeko ikerketa egin duzu. Nondik dator ideia?

Urte asko pasa ditut aisialdiko programetan lanean. Hizkuntza kontuetan beti izan dut interes berezia nerabeen inguruan hizkuntza praktikak ikertzeko, haien ohiturak eta errealitatea jasotzeko. Etengabe errepikatzen den gai bat da. Askotan eskolari buruz, familiari buruz, hitz egiten da. Aisialdiaz hitz egiten da, baina gehiegi jakin gabe — nire ustez— zertan ari garen. Eta gero, interesatzen zitzaidan nerabeen eremuan asko hitz egiten delako gai horri buruz, baina inpresioa dut ez dela beraiekin hitz egiten. Beraien ahotsa jasotzeko eta beraien ikuspuntua jasotzeko gogoan nuen, eta hortik abiatu zen proiektua. Nerabeen hizkuntza praktikak ikertu ditut, baina eskolatik kanpo, eremu ez-formalean. Kasu honetan hel-

burua zen hizkuntza dinamika horien nolakotasuna jasotzea, baina baita nerabeen hizkuntza bizipenak jasotzea ere. Ez da bakarrik ikustea nola hitz egiten duten, baizik eta horren inguruan hizkuntza kontuei buruz beraiek zer esaten diguten aztertzea ere. Hau da, zein diskurtso dituzten, zein iritzi, kezka... Horiek jasotzea. Helburua hori izan da: ikertzea haien hizkuntza praktikak, diskurtsoak eta ideologiak.

Nola jaso dituzu horiek guztiak, nola egin duzu ikerketa?

Hasteko, talde batzuetan ikertzen aritu naiz. Ez ditut nerabeak indibidualki ikertu. Antropologiaren metodologia erabili dut, bertan erabiltzen diren metodo kualitatiboekin hain zuzen, etnografia deitzen den hori. Orduan, pertsona indibidualak hautatu beharrean, egin dudana izan da praktika komunitateak deitzen diren talde batzuk hautatu. Eta kasu honetan kirol eta dantza taldeak aukeratu ditut. Guztira hamar talde izan dira. Futbol, eskubaloia eta dantzako taldeetan izan naiz. 110 gazterekin izan naiz orotara, gehienbat Donostia eta Oarsoaldekoak, 11-16 urte bitartekoak.

Esan bezala, gazteen diskurtsoak eta ahotsak entzun nahi nituen eta horretarako beraiekin egotea ezinbestekoa iruditu zitzaidan. Haiekin denbora pasa behar nuela argi nuen. Metodologia hau erabiliz, ordu pila bat pasa ditut talde hauen entrenamendu edo entseuetan. Ordu pila pasa ditut koadernoan gertatzen zena jasotzen. Behaketak egin eta gero, elkarrizketak egin ditut, 60 bat izan dira. Elkarrizketa luzeak izan dira,

batzuetan banaka baina gehienetan binaka edo hirunaka. Eta gero talde eztabaida batzuk ere antolatu ditut behaketa horien barruan. Dinamika batzuk proposatzen nizkien eta horietatik hausnarketak sortzen ziren, interesgarriak. Informazio pila bat jaso dut, nahi adina.

Hasierako hipotesi hori berretsi duzu, uste zenuen hura hala izan da?

Euskal Herrian hizkuntzaren biziberri-tze prozesua abiatu zenetik, orain dela 40 urte inguru, askotan errepikatu dugu helburu nagusia izan dela eskola sistemaren bitartez haur eta gazteak euskalduntzea, gaitasun eta ezagutza unibertsal bat lortzea. Horrek ekarri duena izan da beti fokua haur, nerabe edo gazteengan jarri dela. Gainera, normalean nahiko modu negatiboan. Ikusi baitugu euskalduntzen ari zirela gazteak, baina gero horrek ez zeukala eraginik. Halako frustrazio bat sortzen zen, gazteak euskalduntzen ari arren, gero kalean ez zuelako islarik horrek. Orduan, ikerketa honen ikusi nahi nuen nerabe hauek diskurtso testuinguru horretan nola bizi diren, hizkuntzaren bizipen horiek zeintzuk diren benetan. Alde batetik ikusi dut beraiek nolabait asumituta dutela diskurtso hori, eta errepikatzen dute guk esaten duguna beraiei buruz. Beraiek esaten dizute: «Guk gaizki hitz egiten dugu euskaraz, erdarakada asko erabiltzen ditugu, bai; ez dugu euskaraz asko egiten». Zentzu negatibo hori beraiek asumituta dute. Nire ustez hori oso lotuta dago nerabezaroaren eraikuntzarekin. Nerabezaroa ez da oso kategoria zaharra. Adineko jende askori esaten

«Nerabeei buruz asko hitz egiten da, baina ez beraiekin»

«Fokua beti haur, nerabe edo gazteengan jarri da, modu negatiboan»

badiozu *nerabe* hitza, askok ez dute ulertuko zertan ari zaren, duela 100 urte ez zelako kontzeptu hori existitzen. Haur, gazte edo heldu zinen, eta kito. Nerabezaroa eraiki denean, beti ezaugarri negatiboekin eraiki izan da. Beti egon da lotuta kontra egitearekin, desorekarekin, eta *la edad del pavo* bezalako esamoldeek hori berresten dute. Beti zentzu negatiboak dituzten ezaugarriekin definitzen da nerabezaroa. Eta horrek hizkuntzarekin lotura dauka. Beti leporatzen zaie denbora guztian nerabezaroan euskaraz egitetik gaztelaniara pasatzen direla, edo hizkerak dauden herrietan ez dutela bertakoa erabiltzen, ez dutela aitona-monek bezala hitz egiten. Beraiek hori errepikatzen dutela jaso dut. Horrek ez du batere laguntzen beraien hizkuntza praktiketan edo motibazioan.

Hori batetik. Bestetik, gero ere aztertu nahi izan dut zer gertatzen zen hizkuntzarekin eskolatik kanpo, eremu ez formal horretan. Eta hor bai ondorioztatu dut zerbait ez dena berria: eskolatik



«Eskolatik kanpoko eremuetan euskararen egitura oso ahula da»

«Exijentzia asko daude hizkuntzen inguruan, batzuk kontraesankorrak»

kanpoko eremuetan euskararen egitura oso ahula dela. Kirolean euskarak duen presentzia oso-oso urria da. Gipuzkoa aztertu dut, eta herri euskaldunenetan ere egitura oso ahula da. Nerabeek ez dute topatzen eskolatik kanpo euskaraz egiteko egitura egokirik. Kirola aztertu dut, baina gauza berbera pasatzen da bestelako esparruetan. Telebista, sare sozialak... Halakoetan ere euskararen presentzia oso eskasa da. Bi ondorio orokor horiek atera ditut ikerketatik.

Uste duzu arau bezala ikusten dutela gazte eta nerabe batzuek euskara?

Batzuek zama bezala bizi dute, eta beste batzuek ez. Interesgarria da ikustea, nerabeei galdetzen diezunean: «Zuri eskolan euskaraz egiteko esaten dizute?», eta baietz diote. Hori eskatzea ulertzen dute, eta eskolako arau hori ulertzen dute. Ulertzen dute zergatik esaten dieten, ulertzen dute euskara hizkuntza ahula dela, eta arau hori ulertzen dute. Baina eskolatik kanpo ez dute arau hori mantentzen denik ikusten. Batzuk, inkluso, denek ez, baina batzuk ez dute onartzen eskolatik kanpo arau hori edo agindu hori jasotzea. Arau sozialak denok onartzen ditugu eta nerabeek ere. Kasu honetan gertatzen dena da, eta nik ondorio hori atera dut, nerabeek ikusten dutela eskolako arau sozial edo helduengandik jasotzen duten arau hori pixka bat tranpatia dela. Beraiek ikusten baitute alde batetik gizarteak eskatzen diela heldu bihurtu behar dutela, haur izatetik heldu izatera pasa behar dutela, eta era berean eskatzen zaie euskaraz egiteko.

Baina beraiek ikusten dute heldu izateko gaztelaniaz hitz egin behar dutela. Beraiek helduen mundua prestigioa

duen mundu bezala ikusten dute. Kasu honetan, kirol munduak adibidez, gaztelaniaz funtzionatzen duela ikusten dute. Orduan, beraiek ikusten dute heldu izatea eta euskaraz aritzea kontraesanak direla. Horren kontra ere agertzen dira nolabait. Adierazten dute: «Zuek esango duzue hau, baina gero guk ikusten dugu heldu izateko gaztelania behar dugula». Agindu kontraesankor dezente jasotzen dituzte. Batetik, esaten diegu euskaraz jakin behar dutela, baina era berean, eta agian honi buruz ez da hainbeste hitz egiten, gizarteak inplizituki edo esplizituki esaten die gaztelaniaz edo frantsesez ere ongi jakin behar dutela. Aztertu ditudan taldeetako gehienek eskolaz kanpo ingelesa ikasten dute. Hori ere eskatzen diegu. Exijentzia asko dira hizkuntzaren inguruan eta batzuk, gainera, kontraesankorrak dira.

Beraz, fokua gurasoengan jarri behar da?

Bai. Atera dudan ondorio nagusietakobat da agian gazteen hizkuntza kontue-

tan gazteei buruz gutxiago hitz egin beharko genukeela eta helduei buruz gehiago. Batzuetan, erdi txantxetan, esan dut gazteen hizkuntza ohituren inguruko ikerketak eta egitasmo asko antolatzen direla, baina gutxitan hitz egiten dela helduen hizkuntza ohituren gainean. Agian hasi beharko ginatete horri begira, hor asko dago egiteko, asko dago hitz egiteko. Eta gainera, helduen mundua euskalduntzen ez dugun bitartean ez dakit alperrik, baina oso-oso zaila da jarraitzea mezu hauek helarazten haur eta gazteei.

Funanbulistak kontzeptua erabili duzu. Zer esan nahi izan duzu horrekin?

Ez zaizkit batere gustatzen nerabeei buruz etengabe errepikatzen ditugun topikoak. Ordu asko pasa ditut nerabeekin eta denetik dago. Badakitenez nerabe izatea topiko horiekin lotuta dagoela, jarrera hori performatzeko dute maiz. Etengabe jasotzen dituzten mezuak desorekarenak dira, eta hortik iritsi zitzaizdan ideia. Ikusi ditut nerabeak hizkun-

tza kontuetan hari baten gainean dabil-tzala, euskararekin funanbulista izatearen sentsazioa dutela. Euskararen eta erdararen arteko oreka zail horretan dabil-tza, eta agian ahalegin gehiegizkoa eskatzen zaiela. Batzuetan badator haizea desorekatzen dituen, esaten diegulako gaizki hitz egiten dutela, adibidez, edo hiztun berriei euskaldun petoak ez direla esaten diegulako. Desoreka sentitzen dute.

Optimista izaten saiatu naiz, desoreka izateak ez duelako zertan negatiboa izan behar. Desoreka egoteak suposatzen du mugimendua badagoela eta horrek agian laguntzen die aurrera urratsak egiten. Desoreka horretan, erortzen bazara, sarera erortzen zara, eta seguru zaude. Eta horrek laguntzen dizu sarean lasaia egoten eta esperimintatzen, adibidez. Kasu honetan ez dakit helduen munduak sare hori eraikita duen, edo korapilo trinkoekin korapilatuta ote dagoen. Helburua litzateke sare hori eraikitzea. ✕

...prosari, poesiari edo marrazkiei ahotsa emanez...
jalgi hadi euskara, paperetik bihotzera!

OARSO BIDASOKO
HITZA

EUSKARAREN EGUNEKO ZOZKETA BEREZIA

BEKATUA
Muga astoa
eta haren inguruko
kalamatrikak
mare
NI EZ NAIZ
MIKEL LABOA

labuz.eus / txokoa

Oarsoaldeko eta Bidasoko egileen liburu sorta
PARTE HARTZEKO EPEA: azaroaren 27tik abenduaren 3ra arte



Pili Saez de Egilaz Inziarte eta Ane Espina Ramirez euskara ikasleak dira Xenpelar AEK euskaltegian. Ikerne Zarate

Euskaraz bizitzea helburu behinena bihurtuta

Hamaika dira euskara lehen lerroan jartzea erabakitzen duten herritarrak, euskaraz bizitzea helburu bihurtuta. Batzuk ikasi, besteek hobetu, Ane Espina eta Pili Saez de Egilaz horren adibide dira.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRETERIA-ORERETA

Euskara erdigunean jarri dute. Ane Espina Ramirez eta Pili Saez de Egilaz Inziarte euskara ikasten ari dira Xenpelar AEK euskaltegian. Saez de Egilazek duela hiru urte erabaki zuen ama hizkuntza

«eguneratu» nahi zuela, beldanik euskaraz aritu bada ere. Ibilbide luzea du, berriz, Espinak soinean euskaldun oso egiteko, «hogei urte egin ditut euskara ikasten, lehenik nire kabuz, gero gau eskoletan, eta azkenik semea jaiotzen, AEKn ikasten hasita».

Euskaraz bizitzea zuen helburu Espinak, baita egi bihurtu ere: «Euskararekin beti izan dut kezka, ikasgai hori pendiente nuen. Zazpi urtez aritu nintzen AEKn eta utzi nuen. Denbora nuen eta berriro hasi nintzen ikasten. Orain disfrutatzen ari naiz, ez dakidana ikasten,

praktikatzen, eta jendearekin aritzeko aukera paregabea da».

Oso bestelakoa da Saez de Egilaz ibilbidea: ikasketa guztiak euskaraz egin zituen, eta ama hizkuntza du euskara. «Eskola partikularrak ematen ditut eta azken urteetan nabaritu dut euskararen gainean zerbait galdetzen zidatenean batzuetan zalantzak sortzen zitzaizkidala, eta pentsatu behar nuela. Berralfabetatu nahi nuen, eta egunean jarri. Honakoa hirugarren ikasturtea dut».

Saioetan giroa paregabea dela diote biek; C1 mailan ari dira, eta argi dute ez dutela titulua ateratzea helburu. «Garrantzitsua euskaraz aritzea, ikastea da, euskaraz bizitzeko tresnak eskura edukitzea. Euskararekin zorretan nengoela sentitzen nuen, ikasi behar nuela», gaineratu du Espinak.

EUSKARA, EZINBESTEKO

Bi amonak euskaldunak zituen Espinak. «Gurasoek, baina, ez zuten mantendu, debekatu zuten euskaraz aritzea galdu egin zuten. Hitz batzuk bai, egiten zituzten, eta hainbat kantu ere, eta euren moduan transmititu zizkiguten, baina oso gutxi. Arantzatxo hori beti izan dut, beraz, euskararekin». Euskara ezinbestekoa zitzaion gizartea, kultura eta beste hainbat kontu ere ulertzeko, «euskarak inguratzen gaitu, gure parte da. Ezinbestekoa nuen, beraz, ikastea».



SAGASTI
ELIZONDO

**Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte**

Barne Diseinua

barruan zein kanpoan, euskaraz

Santxoenea 31. Erreterria. 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com

Ama oiartuarra du Saez de Egilazek, eta euskalduna. Aita, berriz, arabarra, eta ez zuen euskaraz egiten. «Nik ikastolan ikasi nuen. Gurasoek izugarritzko apustua egin zuten, bost anai-arreba ginen, eta lauk ikastolan ikasi dugu; zor diegu gurasoei hori, finean, euskara gure parte delako. Ez dut imajinatzen nire bizitza euskararik gabe, gure bizitzaren parte, gure kulturaren parte da, Euskal Herria euskararik gabe ez litzateke».

Euskaraz bizitzeko aukera duen euskaltegiko atetik kanpo galdetuta. baietz dio Saez de Egilazek: «Nire ingurua euskalduna da oro har, lanean euskaraz egiten dut, lagun gehienak euskaldunak dira, beraz, arazorik ez dut. Hutsunea dendetara sartzean sumatzen dut, baina nire buruarekin. Izan ere, lehen hitza euskaraz egitea kosta egiten zaidala ohartu izan naiz, hori aldatzen ari banaiz ere. Galtzaraborda auzoan hazi naiz, eta gaur egun ezberdina bada ere, garai batean gaztelania entzuten zen bertan. Non-baitera sartzen naizenean lehen hitza

euskaraz egitea falta zait asko-askotan; ari naiz, gero eta gehiago, baina oraindik bidea dut egiteko».

Euskaldun berrien kasuan ulertuko ez dituzten beldurra nagusitzen dela askotan esan du Espinak. «Bankura joaterakoan-eta beldur izaten naiz ez ote dudana nahi dudana egoki adieraziko, ez didaten ulertuko. Beste askotan, artatzen zaituen pertsonaren jarreraren arabera berehala ohartzen zara eroso euskaraz egiteko aukera izango duzun edo ez. Batzuk gaztelaniaz hasten zaizkizu euskaraz jakin arren, zalantzati ikusten zaituztelako eta agian ez duzu esfortzu hori egiten euskaraz jarraitzeko. Errua gurea izan daiteke, eta erabaki behar dugu, gure modura bada ere, euskaraz egiten jarraitzea. Parean duzunaren jarrera oso garrantzitsua da».

Euskara ikasteko prozesuan amarauna sortzen joan da Espina. «Sare ederra dut orain. Nire ikaskideekin, noski, euskaraz dut harremana, baita lankideekin ere, Mintzalagun programan ere parte har-

tzen dut, eta horiekin ere uneoro euskaraz egiten dut. Poliki-poliki sarea zabaltzen zoaz, eta hori oso garrantzitsua da euskaraz bizitzeko prozesuan. Bakoitzaren mundua horrela hedatzen bada, gero eta arnasmune gehiago izango ditugu».

EUSKARALDIA, GARRANTZITSUA

Euskaraldia paper garrantzitsua jokatzen ari dela hizkuntza ohituretan aldatetarako eragiteko sinistuta azaldu da Saez de Egilaz: «Oso garrantzitsua da, kontzientziaz egiten gaituelako eta batzuk behar dugun txip aldaketa egitea erraztu duelako». Saez de Egilazek euskara bere zati dela berretsi du, «nire nortasunaren parte da».

Aitortza egin die Espinak, bestalde, atzerritik udalerrira bizitzera etorritako herritarrei: «Asko ezagutu ditut, eta heldu bezain pronto hasi dira euskara ikasten. Iritsi bezala ohartu dira hemen bizitzeko euskara behar dutela, bertako hizkuntza dela, eta hasi dira pixkanaka ikasten». ✕

**EUSKARAZ
bizitza ikasi**

Errenteriako Euskal Eskola Publikoak



**Cristobal
Gamon HLHI**

943-89 91 38



**Bizarain
ikastola**

943-34 16 45



**KOLDO
M TXELENA**
Herri ikastetxea

943-89 91 87

Gaur, Oarsoarrak sarien banaketa ekitaldia

OIARTZUN. 2023ko Oarsoarrak Euskaren Sarien banaketa ekitaldia gaur egingo dute Oiartzunen. Landetxe kultur-guneak jasoko du aitortza jarduera, 19:00etatik aurrera. Ekitaldi irekia da, edonor joan daiteke. Horregatik, Oarsoaldeko Euskara Batzordeak —eskualdeko lau udalek uda ordezkaritza bertan— herritar guztiei gonbita egin die ekitaldi joan daitezen.

Norbanakoen saria Antton Valverde abeslari oiartzuarrari emango diote. Kolektibo edo taldeen saria, berriz, herrietako gazte talde euskaltzaleek jasoko dute: Trintxerpeko Korkoiburuek, Antxoko Gazte Topaguneak, Antxoko Papipeko Gazteriak, Oretetako Gazte Asanbladak, Oiartzungo Biyurrieneak eta Piztu Lezok. Sari ematez gain, hainbat ikuskizun izango dira Oiartzungo aretoan. Ondoren, zizka-mizkak jateko aukera izango da.



Hondarribia eta Lezo UEMAKo kide dira

OARSO BIDASOA. Hondarribia eta Lezo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) 104. eta 105. herri dira hurrenez hurren. Bi herrietako udalbatzek hala izatea erabaki dute azaroan egindako osoko bilkuretan. Horrela, UEMAK dituen baliabideak bere egin ahal izango dituzte euskarari bultzada emateko.

Motxian Eby, gazteen bideoen zain

OARSOALDEA. Gazteek ikus-entzunezkoak euskaraz sortzeko egitasmoa abian da, Motxian Eby. Hasi berri den edizioan Julen Castillo aktoreak erronka bat luzatu die gazteei, eta horren arabera egin behar dituzte lehen txandako bideoak: hilaren 17ra arteko epea dute horiek sortzeko.

Bigarren erronka 2024ko otsailean ezagutaraziko dutela jakinarazi dute antolatzaileek (horren barruko bideoen entrega martxoaren 10era arte entrega daiteke). Baina tartean, urtarrilean, Asmazank lehiaketak antolatuko dituzte eskualdeko herrietan. Erronka bakoitzeko hainbat sari banatuko dituzte.

Erronka bakoitzeko bideoarik onenak 150 euroko saria jasoko du; bi erronkak bukatzean, bideo guztien artean onenarentzat saria 200 eurokoa izango da; Oarsoaldeko herri bakoitzeko bideo onenarentzat saria, berriz, 50 eurokoa izango da.

Lehen Korrika Batzordea egingo dute gaur

IRUN. Irunen hasiko da AEKren 23. Korrika 2024ko martxoaren 14an; Baionan bukatuko da hamar egun geroago. Pozez jaso dute bai herriko euskaltegiko kideek zein euskalgintzak oro har albistea. Irun euskalgintzaren erdigune izango da data horretan. Horri begira antolaketa lanean hasi dira jada. Hala, gaur bertan, lehen Korrika Batzordera deitu dituzte irundarrak: 18:30ean izango da bilkura, Palmera Montero gunean.

Aurrez saretze lanean hasiak dira irundarrak, hiriko AEK-ko kideak prozesuaren buru direla. Antolaketa lan handia izango da martxoaren 14koa ondo-ondo prestatzea, eta denboraz ari dira hiria euskaraz beteko duen eguna, eta gainerako guztiak, antolatzen. Adibidez, azaroaren 18an herri argazkia atera zuten dozenaka irundarrek, Korrika bertan hasiko dela ospatzeko, eta euskarari eta euskaltegiei bultzada emateko lasterketa ibiltariak arrastoa utz dezan zereginari ekiteko.



Alaine Aranburu



OARSOALDEA eta BIDASOKO

ekitaldi guztiak **KLIK** batean!




oarsoaldea.hitza.eus/agenda • bidasoa.hitza.eus/agenda

BISITA GAITZAZU!

ERRENTERIAN ARI GARA

ABENDUAK

1

**TOTE BAG POLTSAK
MARGOTZEKO TAILERRA**

GRAFITI TAILERRA

KUADRILLATEGI

🕒 18:00 📍 LAU HAIZETARA

IREKIA

HERRI ARTE ESKOLA

Kantaldia trikitixa eta dultzaina ikasleen eskutik

🕒 18:30

📍 ZUMARDIA



BARSOARRAK SARIAK

Euskararekin praktika onak saritzeko jardura.

Carsoaldeako
Euskara Batzordea

🕒 19:00

📍 LANDETXE-DIARTZUN

ABENDUAK

2

IPUIN KONTAKETA FAMILIAN

2-5 urte bitarteko haurrak, heldu batek lagunduta

🕒 11:30-12:15

📍 LEKUONA FABRIKA,
PLAZA TXIKIA



BATU DITZAGUN GURE ANOTSAK

GAITU. EKITALDIA.

Makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu. Horra gure erronka

🕒 12:00-13:30 📍 ZUMARDIA

ANTZERKIA: BARREXERKA

Bagoiaz: umorezko bakarriketak, eskebak eta antzerki piezak

🕒 19:00

📍 NIESSEN



gorbidapenak:
sarrerak.errentaria.eus

ABENDUAK

3

KANTUJIRA

Ibilbidea herrian zehar txistulariek laguntzaz

🕒 12:00-13:15

HERRI BAZKARIA

Sarrerak Sindikato eta Arkaitza tabernetan salgai

🕒 14:00

📍 JOSE LUIS
CASO ARETOA

PONTX PAILAZOA

🕒 17:00

📍 CRISTOBAL GAMON
IKASTETXEA

ABENDUAK

17

🕒 11:30-12:15

📍 NIESSEN

EUSKAL MITOLOGIAKO KONDAIRA MUSIKATUA

Herri Arte Eskolako hitz eta antzerkiko ikasleak eta Udal Txistulariak

GORBIDAPENAK
HERRI
ARTE
ESKOLAKO
HARRERAN

BERTSO KANPORAKETA

Xenpelar bertso eskolak antolatuta, azaroan zehar kanporaketak emango dira

ABENDUAK 1

🕒 19:00

📍 Xenpelar etxea

ABENDUAK 8

🕒 17:00

📍 NIESSEN **BERTSO
FINALA**

EGITARAUAK

GAUR

Lezo. 17:30ean, Tomas Garbizu Musika Eskolan, eskolako ikasleen kontzertua.

Erretereria-Orereta. 18:00etan, Joxepa Antoni Aranberrin, poltsak margotzeko eta grafiti tailerrak; 18:30ean, Zumar-dian, kantaldia.

Hondarribia. 18:00etan, Itsas Etxean, Euskararen Kriseilua.

Oiartzun. 19:00etan, Landetxen, Oar-soarrak Euskararen Sarien banaketa ekitaldia. Irekia da, edonor joan daiteke.

Pasaia. 19:00etan, Antxoko Kultur Etxean, *Kanpora sartzen* antzezlan.

Irun. 20:00etan, Oiasson, Olatz Salvadorren eta Gariren kontzertuak.

.....

BIHAR

Hondarribia. Bagan Euskara Elkartearen egun osoko egitaraua. 11:00etan, eskulanak Arrantzale auzoan; 12:00etan, bertso-poteoa Beñat Gaztelumendi eta Maialen Akizurekin; 14:30ean, bazkaria

Kasino Zaharrean; 17:00etan, Txikiren bakarriketa; 19:00etan, Jawata anti-DJ; 21:00etan, kontzertua: Hok Ttuk Hamalau, The Iingles eta Skubi.

Erretereria-Orereta. 12:00etan, Zumar-dian, Gaitu ekitaldia; 19:00etan, Niessen *Bagoiaz* umorezko bakarriketak, esketxak eta antzerki piezak.

Irun. 12:00etan, Urdanibia plazatik, kantu jira.

Pasaia. Trintxerpeko Korkoiburuen egun osoko egitaraua Gudarien Plazan. 11:30ean, haurren tailerrak eta jolasak; 12:00etan, mutxikoak; 13:00etan, kantu poteoa; 14:30ean, bertso bazkaria Beñat Gaztelumendi eta Maialen Akizurekin; 17:30ean, Zinema Txikia Ozzy filmarekin Trintxerpeko alkateordetzan; 18:00etan, Itzal erromeria; 22:00etan, guatekea. Antxoko Kultur Etxean (17:30), Zinema Txikiaren barruan *Tarzan*.

Lezo. Gezala Auditoriumean, Lezoko Zinema Txikiaren emanaldiak: *Izurde mutikoa* (17:00); eta *Irati* (19:00).

Oiartzun. 10:00etatik, HemenGuk azoka Kontzejupean; 10:00-13:30 eta 17:00-19:00, Gaitu proiektuaren barruan herritarren ahotsen grabaketak pleno aretoan; 17:00etan, ikastetxeen, Haziak-en eta Abaraxkaren ekintza eta emanaldiak plazan; 22:30ean, Bengo eta Hamabiren kontzertua Landetxen.

.....

ETZI

Lezo. 09:00etan, *Euskararen haziak ereiten* ibilbide gidatua plazatik; 14:00etan, Lezo Herri Eskolako jolastokian bazkari autogestionatua; 15:00etan, jolasak eta tailerrak; 16:30ean, Txirbilla Sound System.

Erretereria-Orereta. 12:00etan, Herriko Plazatik, kantu jira; 14:00etan, Jose Luis Caso aretoan, herri bazkaria; 17:00etan, Cristobal Gamon ikastetxean, Pontx pailazoa.

Oiartzun. 12:00etan, *Oiartzun kantuan*, plazan; 19:00etan, *Kanpora sartzen* antzezlan, Landetxen.

Irun. 17:00etan, Ene kantak, Amaian.





**Euskaraz zara,
euskaraz gara.**

**Lezoko Udala
euskararekin bat**




Lezoko
Unibertsitateko
Udala

**HITZ
GEZIDUNAK**



Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik 688 77 07 52 zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), denborapasakobh@hitza.eus helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. **Epe muga:** datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

	Frontoia ▼	Okela ▼	Karta joko ▼	Eskegi, zintzilikatu ▼	◆ Izena ▼
	Gip. eta Naf. mendatea	Nafarroako udalerrria	Kontsonante bikoitza	Ukamena, ukatzea	Baldresak
	▶	▼	▼	▼	▼
	◆ Deitura ▶				
	Namibiako herritar				
Igorriak ▼	Zer lekutara? ▼		Landare mota ▶		
Oiloen bizitegi	Zuhaitz mota		Nafarroako kontzejua		
▶	▼		▼	Seguru ▶	
				Adia eginez	
Bizkaiko udalerrria ▶		Erreka handi ▶			Sufrea ▶
XI. hila, azaroa		Lehenengo letra			Kontsonantea
			Xurgatu ▶		
			Hobetu		
Erretegi ▶		Gipuzkoako ibaia ▼			Iridioa ▶
Sagarroia, trikua		Bokal mehea			Sarrera
▶					Sexu eme ▶
					Bokala
Lege ▶		500 ▶	Katu ar ▶	▼	
Beldurtuta		Tona, labur-labur	Kontsonantea		
▶		▼	▼		Eguzki ▶



GOITIBEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Errenteriako kirol eta kultura elkarte.
- [2] Zuberoan, seinale.
- [3] Gipuzkoako udalerrria, Goierri.
- [4] Oiloen galtzaile.
- [5] Nafarroako udalerrria, Oibarren.
- [6] Modua.
- [7] Nafarroako udalerrria, Bortzirietan.
- [8] Ugaztun karraskaria, jauzika ibiltzen dena.
- [9] Ekialdeko Europako estatua.
- [10] Errusiako lurralde hotz eta zabala.
- [11] Bide bat erabiltzeagatik ordaindu beharreko kopuru.

**AZAROAK 24ko
ASTEKARIKO
DENBORAPASEN
ERANTZUNAK**

1	6	5	2	9	8	3	7	4
3	9	4	7	6	5	1	8	2
7	8	2	3	4	1	6	5	9
8	4	6	5	1	9	7	2	3
2	5	1	4	3	7	8	9	6
9	7	3	8	2	6	4	1	5
5	1	9	6	7	3	2	4	8
4	3	8	1	5	2	9	6	7
6	2	7	9	8	4	5	3	1

SUDOKU

				T	A	O	B							
		T	X	D	M	I	N	A	L	A				
				O	R	A	N	G	U	T	A	N		
		A		K	I	R	I	O	A	K		N	A	
		A	R	T	O	L	A		N	I	O	N	K	
		B	A	R		Z	G		L	A	I	N	O	
		P	A	R	T	E	K	A	T	U		N	O	A
		S		A	G	E	R	R	A	L	D	I		
		B	O	A		O	R	I	A		A	U	Z	O
		B	A	M	A	S	A		P	A	U	E	S	
		I	K	A	S	I		D	U	R	A	N	G	O

HITZ
GEZIDUNAK

DENBORA-PASAK



**ASTEKO SARIA
MAHALAREN
PRODUKTUEN SASKIA**

Mahala Baserría - LEABURU.
info@mahala.eus
www.mahala.eus

**AURREKO ASTEKO SARIDUNA
IZASKUN ARRONDO ETXABE**

TRIKUHARRI ELKARTEAREN PRODUKTU SORTA
Bi karta joko eta koloreztatzeko koadernoak.
www.trikuharrike.blogspot.com



'kulturr emanaldi guztielarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA

61



**BI ALBUM
ILUSTRATUKO SORTA**

Gaszte literatura
(14 urtetik gora)

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 61)

Denonartean argitaletxea
www.denonarteanargitale-
txea.eus

62



**HIRU ALBUM
ILUSTRATUKO SORTA**

Haur literatura (3-7 urte)

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 62)

Pamiela-Kalandraka
www.pamiela.com/eu/

63



**DONOSTIAKO
AQUARIUMA**

Bi lagunentzako
bina sarrera

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 63)

www.aquariumss.com

64



**BBK KARPIN
ABENTURA**

FAUNAREN BABES ZENTRUA
Bi lagunentzako bina sarrera

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 64)

KARRANTZA
infokarpin@gmail.com
Tel.. 626 622 245

Zozketan parte hartzeko deitu: 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, abenduaren 18a baino lehen. Saridunen izenak abenduaren 22an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKIDE.....
Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidaso.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Oregeta)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€

Asmatu nor diren eta irabazi sari ederrak!

Zaraitz, pintak eta etxeraino topatuko dituzu Inan,
horizantzia, Lizo, Errenteria-Oreata, Diartzun
eta Pasaiako pertsona hauek nor diren.

ZEIN DA ZEIN?

SARIAK:

**Erantzun gehien asmatzen
dituztenen artean:**

**Zuhaitz-Etxeetan
gau bat eta spa
saioa bi lagunentzat**



**Parte hartu duten HITZakide
eta harpideen artean:**

**Errigorako produktuen
kaxa eder bat**



Parte hartzaile guztien artean:

**HITZakide*
izateko bost sari**

*** (harpidetza digitalak)**



Parte hartzeko moduak:

<https://oarsoaldea.hitza.eus/jokoak/zein-da-zein/>

<https://bidasoaldea.hitza.eus/jokoak/zein-da-zein/>

Parte hartzeko epea: azaroaren 22tik abenduaren 5era arte